

EUSKARAREN ERABILERA
EAE-KO ENPRESA HANDIETAN

2003ko apirila.

AURKIBIDEA.

Aurkezpena eta fitxa teknikoa.....	1
1- Hizkuntz gaitasuna.....	8
2- Euskararen erabilera oro har.....	15
3- Euskararen erabilera komunikatzeko moduetan.....	26
4- Euskararen erabilera normalizatzeko neurriak.....	46
Laburpena eta ondorioak.....	57

ERANSKINA: Taulak.

AURKEZPENA ETA FITXA TEKNIKOA

Azterlan honen helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa handietan euskararen erabilera aztertzea da. Horretarako, 100 langile edo gehiago dituzten enpresei telefono bidez egin zaien galdeketaren emaitzak hartu dira abiapuntu.

Ondoren aurkezten dugun txostenak lau atal ditu:

1. Lehen atalean, EAEko enpresa handiak deskribatuko dira, eta horretarako langileen hizkuntz gaitasuna hartu da aintzat, hau da, euskara dakiten langileen proportzioa hartu da kontuan. Kategoriaz kategoriako azterketa ere barne hartuko da (zuzendaritzakoak, teknikariak...).
2. Bigarren atalean, enpresaren jardueretan gertatzen den euskararen erabilera aztertuko da, betiere orokorrean hartuta. Gainera, euskararen erabilerak enpresan duen garrantziari buruz elkarriketatutako pertsonen duten iritzia aztertuko da.
3. Ondoren, enpresetan gertatzen den euskararen erabilera zehatzago aztertuko da, eta komunikatzeko moduetan gertatzen den euskararen erabilera deskribatuko da: ahozko barnekoan, idatzizko barnekoan, ahozko kanpokoan eta idatzizko kanpokoan. Horrez gain, komunikatzeko modu bakoitzean hainbat esparru edo jarduera zehatzetako erabilera deskribatuko da.
4. Laugarren eta azken atalean, enpresek euskararen erabilera normalizatzeko jada hartu dituzten neurriak deskribatuko dira, epe laburrerako aurreikusten diren beste neurri batzuk adieraziko dira, eta enpresek lehentasunez zein arlotan edo jardueretan ezarriko lituzketen jasoko da.

Emaitzak enpresen osotasunerako aztertuko dira, bai eta jarduera-sektorearen eta enpresen tamainaren arabera definitutako kolektiboetarako ere. Gainera, ondoko beste aldagai hauen arabera ere aztertuko dira: lurralde historikoaren arabera, gune soziolinguistikoaren arabera, produktu edo zerbitzuen amaierako hartzaillearen arabera (beste enpresa bat edo azken kontsumitzailea), merkatu geografikoaren arabera (Euskal Herria eta/edo gainerakoa) eta kapitalaren jatorriaren arabera (Euskal Herria eta/edo gainerako).

Txostenean emaitzarik adierazgarrienak soilik aditzera emango direnez gero, Taulak eranskinera jo beharko da, informazio xehatuagoa lortu nahi bada.

FITXA TEKNIKOA.

Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTATEk) emandako Enpresa eta Establezimenduen direktorioan agertzen diren 100 langile edo gehiagoko enpresa edo establezimenduak aztertu dira. Zerrenda horretatik herri-administrazioak baztertu ondoren (Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak, Gobernu Zentraleko ordezkariak eta sare publikoko ospitaleak eta ikastetxeak), 100 langile edo gehiago dituzten 661 enpresa edo establezimendu izan dira aztergai, horietako 82k Araban dute egoitza, 288k Bizkaian, 180k Gipuzkoan eta 111k Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo.

Azterlana egiteko informazioa telefono bidezko elkarrizketen bitartez bildu zen 2003ko otsailaren 4tik 20ra bitartean. Elkarrizketak enpresetako giza baliabideen zuzendariekin edo arduradunekin egin ziren, baina elkarrizketak egin aurretik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak gutun bat bidali zien zuzendari edo arduradun horiei egingo zen azterlana aurkezteko.

Gai horren inguruan dagoen esperientziaz baliatu ahal izateko, honako azterlan honetan erabili den galdera-sorta beste azterlan bateko galdera-sortan oinarritu da, Kataluniako Generalitateko Kultura Sailak joan den urtean egin zuen antzeko ezaugarrietako azterlan bateko galdera-sortan hain zuzen ere. Dena den, bidezko egokitapenak eta aldaketak egin behar izan dira.

Lortu den erantzun-tasa handia da, abiapuntuko enpresa-multzoko 661 enpresetatik 455 enpresari egin zitzaizen elkarrizketa, guztizkoaren %69ri.

Gainerako 206 enpresei, hau da, %31ri elkarrizketa ez egitearen arrazoiak ondokoak izan ziren:

1. Arrazoi nagusia ukatzea izan zen, 123 enpresak, hots, guztizkoaren %19k, galdera-sortari erantzuteari uko egin zioten.
2. 27 enpresatan, hots, guztizkoaren %4an, galderak erantzun behar zituen pertsona ez zen enpresan egongo denboraldi luze batez (lan-arrazoiengatik, bajaran izateagatik, oporreetatik...) eta/edo enpresan ez zegoen gai horren inguruan galdeketa erantzuteko behar beste zekien pertsonarik.
3. Azkenik, ezinezkoa izan zen 55 enpresarekin harremanetan jartzea, hau da, guztizkoaren %8rekin. Horietako batzuk desagertu egin dira edo beste batzuekin bat egin dute, beste batzuek ez dute jada EAEn lan egiten. Gainerakoak, bestalde, ezin izan dira aurkitu hainbat direktoriotan "arakatu" den arren. Izatez, Eustat-ek helarazitako telefonoa eta helbidea ez zegokien jada.

Erantzun-tasa ez da asko aldatu enpresa-kolektibo batetik bestera, sozietate-egoitza EAEz kanpo duten enpresen kasuan izan ezik. Azken horien artean erantzun-tasa %29ra murriztu da. Kolektibo horrek gainerako kolektiboek baino askoz ere gehiago egin dio uko galderak erantzuteari, eta, horrez gain,

kolektibo horretako enpresa askorekin ezin izan da harremanetan jarri, edo ez zegoen gai horren inguruan galdeketari erantzuteko behar beste zekien pertsonarik.

Gainerako enpresa-kolektiboen artean aldaketa txikiak izan dira erantzun-tasari dagokionez. Horrela:

- Lurralde Historikoen arabera, sozietate-egoitza EAEn duten enpresen artean, zertxobait handiagoa izan da erantzun-tasa Bizkaian (%79) eta Gipuzkoan (%78) Araban (%67) baino.
- Tamainari dagokionez, zertxobait handiagoa izan da erantzun-tasa 500 langile baino gehiago dituzten enpresetan (%78) 100 eta 250 langile artean dituzten enpresetan (%69) eta 251 eta 500 langile artean dituztenetan (%64) baino.
- Jarduera-sektorearen arabera, berriz, eraikuntza-sektorean (%67) eta zerbitzu-sektorean (%62) baino zertxobait handiagoa izan da erantzun-tasa industria-sektorean (%75).

Hasiera batean aintzat hartu ziren enpresa guztiak elkarriketatu ezin izan direnez gero, gerta daiteke elkarriketatutako enpresen emaitzak orokortzean nolabaiteko distortsioa gertatzea. Izan ere, sozietate-egoitza EAEz kanpo duten enpresen artean erantzun-tasa askoz ere txikiagoa izan da, eta, printzipioz, euskararen erabileraren aldeko joera handiagoa duten emaitzak lortu direla pentsarazten du horrek. Nolanahi ere, sozietate-egoitza EAEz kanpo duten enpresen proportzioa txikia da, seirena, eta, horrez gain, sozietate-egoitza EAEn edukitzeak ez dakar nahitaez euskara gehiago erabiltzea –alabaina, horixe da joera orokorra, nabarmena ez bada ere—. Hori guztia dela-eta, segur aski distortsioa txikia izango da.

Emaitzetan nolabaiteko distortsioa egotea baino garrantzitsuagoa da euskararen erabilerari buruzko emaitza gehienak elkarriketatutako pertsonak berak hautematen duenaren ondoriozkoak izatea. Horrenbestez, emaitza gehienak pertzepzio hutsaren ondorioa dira, enpresa gehienetan ez baitago euskararen erabilera neurtzen duen datu objektiborik. Euskara dakiten langileen ehunekoari buruzko emaitzak ere elkarriketatutako pertsonak hautematen duenaren ondoriozkoak dira. Oso enpresa gutxik dute datu hori erregistratuta.

Txostenaren lehen atalarekin hasi aurretik, elkarriketatutako enpresen ezaugarri nagusiak deskribatuko ditugu, bai eta jarduera-sektorearen, tamainaren eta beste alderdi batzuen arabera enpresa-kolektiboen ezaugarri nagusiak ere. Elkarriketatutako pertsonak ere deskribatuko ditugu. Deskribapen horiei esker, azterlanaren emaitzak hobeto interpretatzeko aukera izango da.

ELKARRIZKETATUTAKO ENPRESEN DESKRIBAPENA.

Elkarrizketatutako enpresa gehienek, %93k, EAEn dute sozietate-egoitza. Sozietate-egoitza kanpoan duten enpresen kasuan, gainerako %7a, enpresa horiek EAEko ordezkartza edo planta nagusia dagoen udalerriarekin lotu dira. Horrela egin ondoren, lurralde historikoen eta gune soziolinguistikoen arabera banaketa eta biztanleriaren banaketa antzekoak direla ikus dezakegu.

Hortaz, enpresen erdiak baino gehiago, %55, Bizkaian daude; herenak, %32, Gipuzkoan daude; eta %13 Araban daude. Enpresen %41 4. gune soziolinguistikoa daude (euskaldunak <%20), %21 3. gunean daude (%20-45), %32 2. gunean (%45-80), eta gainerako %6a 1. gunean (>%80).

Tamainari dagokionez, berriz, enpresen bi herenek, %64k, 100 eta 250 langile artean dute; bostenek, %20k, 251 eta 500 langile artean dute; eta seirenek, %16k, 500 langile baino gehiago dute. Jarduera-sektoreari erreparatuz gero, ikus dezakegu erdiak baino gehiago, %56, industria-sektorekoak direla; %6 eraikuntza-sektorekoak direla; eta %39 zerbitzu-sektoreak direla.

Azkenik, erdiek baino gehiagok, %58k, beren produktuak edo zerbitzuak beste enpresa bati saltzen dizkiete. Bestalde, laurdenek beren kapitalaren jatorriari eta beren salmenten kokapen geografikoari buruzko galderak erantzun ez dituzten arren, aditzera eman daiteke enpresen erdiek baino gehiagok euskal kapitala dutela, eta gehiago direla beren produktu edo zerbitzuak EAEz kanpo saltzen dituzten enpresak EAE barruan saltzen dituztenak baino.

Aintzat hartu diren enpresa-kolektiboak dagokienez, eta jarduera-sektorearen arabera sailkapenetik hasita, ondokoak dira ezaugarriak adierazgarriak:

- Industria-enpresen erdiak baino gehiago gune euskaldunetan daude (>%45), eta gehienek EAEz kanpoko beste enpresa batzuei saltzen dizkiete beren produktuak.
 - Eraikuntza-enpresa gehienak Bizkaiko gune erdaldunetan daude (<%45), 100 eta 250 langile artean dituzte, eta beren produktuak batez ere EAEko beste enpresa batzuei saltzen dizkiete.
 - Zerbitzu-sektoreko enpresa gehienak gune erdaldunetan daude, beren zerbitzuak batez ere EAEn saltzen dizkiete amaierako kontsumitzaileari, eta beren kapitala Euskal Herrikoa da, batik bat.
- Dena den, zerbitzu-enpresen artean hainbat aldagai hartuko da aintzat, berezko ezaugarriak dituzte-eta.
- Beste enpresa batzuei zerbitzu egiten dieten enpresek eta, neurri txikiagoan, garraio eta komunikazioaren sektoreko enpresek beste enpresa batzuetarako egiten dute lan nagusiki.

- Merkataritza eta ostalaritzako enpresek dute kanpoko kapitalaren proportzio handiagoa, eta sozietate-egoitza EAEz kanpo duten enpresen artean sektore horietakoak dira proportzio handi batean.
- Banku eta aseguruaren sektoreko enpresa guztiek dute 250 langile baino gehiago.
- Irakaskuntza eta osasunaren sektoreko enpresa guztiek dute beren egoitza EAEn, eta euskal kapitala dute. Enpresa horiek EAEn saltzen dizkiote beren zerbitzuak amaierako kontsumitzaileari, eta gainerako zerbitzu-enpresak baino gune euskaldunagoetan kokatuta daude.
- Bestelako zerbitzuak sektoreko ia enpresa guztiak Bizkaian daude (elkartze-enpresak, erlijiozkoak, kulturalak, komunikabideak...).

Aitzitik, ia ez dago ezberdintasunik tamainaren arabera sailkatutako enpresen ezaugarrietan. Alderik handiena jarduera-sektoreari dagokionez gertatzen da, tamainarekin gehitu egiten baita zerbitzu-sektorearen enpresen ehunekoa; %35 100 eta 250 langile artean dituzten enpresen kasuan, %40 251 eta 500 langile artean dituztenen kasuan, eta %51 500 langile baino gehiago dituztenen artean.

Lurralde Historikoen arabera:

- Bizkaiko enpresak guztizkoaren erdia baino gehiago direnez gero, batez bestekoaren antzeko profila dute, eta gune erdaldunagoetan daude.
- Gipuzkoako enpresa gehienak gune euskaldunetan daude (>%45) eta industria-sektorekoak dira.
- Arabako enpresa guztiak gune erdaldunetan daude (<%45). Gehienak industria-sektorekoak dira, eta EAEz kanpoko enpresei saltzen dizkiete beren produktuak.

Gune soziolinguistikoen arabera:

- 1. guneko (>%80 euskaldunak) enpresek dute profil bereiziena. Ia guztiak industria-sektorekoak dira, gehienak Gipuzkoan daude, eta beren produktuak EAEz kanpoko enpresei saltzen dizkiete.
- Aitzitik, 4. guneko (<%20 euskaldunak) enpresa guztiak Bizkaian eta Araban daude –gehiengo nabarmena Bizkaian–, eta erdiak baino gehiago zerbitzu-sektorekoak dira.
- Hain nabarmen ez bada ere, 2. guneko enpresen profila 1. guneko enpresen profilaren antzekoa da, eta 3. guneko enpresen profila 4. guneko enpresen profilaren antzekoa.

Produktuen edo zerbitzuaren amaierako hartzaileari dagokionez:

- Beren produktuak edo zerbitzuak beste enpresa batzuei saltzen dizkieten enpresen bi herenak industria-sektorekoak dira, eta erdiek baino gehiagok EAEz kanpo saltzen dituzte.

- Aitzitik, amaierako kontsumitzaileari saltzen dizkieten enpresen bi herenak zerbitzu-sektorekoak dira, eta erdiek baino gehiagok EAEn saltzen dituzte.

Salmenten helburu geografikoari dagokionez:

- Beren produktuak edo zerbitzuak EAEz kanpo saltzen dituzten ia enpresa guztiak industria-sektorekoak dira, gehiengoak beste enpresa batzuei saltzen dizkiete, eta erdiak gune euskaldunetan daude (>%45).
- Aitzitik, beren produktuak edo zerbitzuak EAEn saltzen dituzten enpresen hiru laurdenak baino gehiago zerbitzu-sektorekoak dira, euskal kapitala dute, eta gune erdaldunetan daude (<%45). Bestetik, erdiek baino gehiagok amaierako kontsumitzaileari saltzen dizkiote beren produktuak edo zerbitzuak.

Azkenik, kapitalaren jatorriari dagokionez:

- Kanpoko kapitala duten enpresen bi herenak industria-sektorekoak dira, eta beren produktuak edo zerbitzuak EAEz kanpoko beste enpresa batzuei saltzen dizkiete.
- Bestalde, euskal kapitala duten enpresen erdiak zerbitzu-sektorekoak dira, eta beren produktuak edo zerbitzuak EAEn saltzen dituzte batez ere.

Enpresa-kolektiboen ezaugarriak deskribatu ondoren, argi eta garbi hautematen da jarduera-sektorea dela funtsezko giltzarria. Jarduera-sektoreak baldintzatzen du, neurri handi batean bederen, produktuen edo zerbitzuen amaierako hartzailea, merkatu geografikoa eta kapitalaren jatorria. Horrez gain, lurralde eta gune soziolinguistikoen banaketan eragina du, neurri txikiagoan bada ere, bai eta enpresen tamainan ere.

Horrenbestez, emaitzak aztertzeko garaian, jarduera-sektorea izango da gehien erabiliko den aldagaia.

ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONEN DESKRIBAPENA.

Sarrerari amaiera emateko, elkarrizketatutako pertsonen ezaugarriak deskribatuko ditugu labur-labur:

- %60 giza baliabideetako zuzendariak edo pertsonal-buruak dira, %17 giza baliabideetako teknikari arduradunak dira, %8 zuzendariak edo gerenteak, %11 beste sail batzuetako zuzendariak edo arduradunak, eta %5 euskara-teknikariak.
- %62 gizonezkoak dira eta %38 emakumezkoak.
- Erdiek, %50ek, 40 urte baino gutxiago dituzte. Batez besteko adina zertxobait handiagoa da industria-sektoreko enpresetan, eta zertxobait txikiagoa eraikuntza eta zerbitzuetako sektoreetan.
- %40 euskaldunak dira, %17k zertxobait hitz egiten dute euskara, eta %43k ezer ez. Euskaldunen ehunekoak gora egiten du Gipuzkoako enpresetan, %64, eta %50etik gorakoa da banku eta aseguruaren sektorean eta irakaskuntza eta osasunaren sektorean.
- Euskaldunen erdiek, %51k, familiarekin batez ere hitz egiten dute euskaraz, eta erdaldunen erdiek, %49k, interes handia edo handi samarra dute euskararekin.
- %21ek euskaraz erantzun diote galdeketari –hau da, euskaldunen erdiek erantzun diote euskaraz–, %7k euskaraz eta gaztelaniaz erantzun diote, eta gainerako %72ak gaztelaniaz.

Azkenik, aditzera eman behar dugu telefono-deiak egitean telefonisten %18k euskaraz hartu zuela telefonoa; idazkarien %25ek eta elkarrizketatutako pertsonen %23k ere halaxe egin zuten. Haatik, kontuan izan behar da idazkarien zati batek eta elkarrizketatutako pertsona gehienek, telefonoa hartu baino lehen, bazekitela zein zen deiaaren arrazoia, hau da, bazekiten euskararen erabilerari buruzko galdeketa bat egiteko deia zela.

1.- HIZKUNTZ GAITASUNA.

Lehen atal honetan EAEko enpresa handietako langileen hizkuntz gaitasunaren deskribapena egingo da, hau da, enpresa handi horietan langileen ehuneko zenbatek dakien euskaraz deskribatuko da.

Sarreraren aditzera eman dugun moduan, enpresa gutxiak dute datu hori erregistratuta, eta jasotako erantzuna elkarrizketatutako pertsonak gai horren inguruan hautematen duenari dagokio. Lana errazteko, elkarrizketatutako pertsonen bederatzi tarte dituen eskala eman zitzaien erantzuna errazteko: <%5, %10-15, %25, %30-40, %50 >%95. Hala ere, elkarrizketatutako pertsonen %5 ez ziren erantzuten ausartu.

Horrenbestez, pentsa daiteke lortzen diren emaitzak ez direla oso zehatzak izango; alabaina, mota horretako galdeketen bitartez ez dago informazio hori jasotzeko beste modurik. Nolanahi ere, gai horren inguruan informaziorik onena izan dezakeen pertsonari egin zaio elkarrizketa, hau da, enpresa horretako giza baliabideen arduradunari. Gainera, banakako kasuak aztertu beharrean kolektiboetan metatutako datuak aztertuko dira. Hori dela-eta, erantzun horietan antzematen diren joerak benetakoak izango dira, eta eskaintzen diren datuak errealtatetik nahiko hurbil egongo dira.

Hori egiaztatzeko, euskal hiztunen edo euskaldunen ehunekoari buruz galdeketa lortutako datuak aldera ditzakegu 2001eko amaieran egindako III. azterketa soziolinguistikoaren datuekin. Izan ere, galdeketa bidez jasotako datuen arabera, enpresetako langileen %35, batez beste, euskaldunak dira, eta, III. azterketa soziolinguistikoaren arabera, EAEko besteren konturako langileen artean %31 dira euskaldunak. Bi ehunekoen arteko aldea, beraz, 4 puntukoa da. Elkarrizketatutako pertsonen hautemate okerrearen gain, kontuan izan behar da erantzun-tasa askoz txikiagoa izan dela beren sozietate-egoitza EAEz kanpo duten enpresen artean.


Horrenbestez, bi ehuneko horien arteko aldea lau puntukoa besterik ez denez gero, bi ondorio nagusi atera daitezke:

- Elkarrizketatutako pertsonak euskara dakiten enpresako langileen ehunekoa ebaluatzean, orokorrean, “baitor samarrak” badira ere, benetako datuarekiko aldea oso txikia da.
- Era berean, abiapuntuko enpresa-multzoan barne hartzen ziren enpresa guztietan elkarrizketa egin ezin izanak distortsio txikia eragin du.

EAEko enpresa handietan euskal hiztunak batez beste %35 dira, baina ehuneko horren atzean oso egoera ezberdinak biltzen dira. Hala, enpresan lan egiten duten euskaldunen proportzioan oinarrituta, lau enpresa-multzo bereiz daitezke, eta multzo horietako bakoitzak enpresen laurdenak, gutxi gorabehera, biltzen ditu:


- Ia inork ez daki euskara (<%5) enpresen %22an.
- Laurdenek edo gutxiagok dakite euskara (%5-30) enpresen %25ean.
- Erdiek edo gutxiagok dakite euskara (%30-55) enpresen %24an.
- Eta erdiek baino gehiagok dakite euskara (>%55) enpresen %24an. Gainera, langileen %55-%80k dakite euskara enpresen %15ean, eta langileen %80k baino gehiagok dakite euskara enpresen %9an.

Enpresen gainerako %5a ez da datu hori emateko gauza izan.



Enpresa bakoitzeko euskaldunen batez besteko ehunekoa oso aldatzen da jarduera-sektorearen arabera.

- Irakaskuntza eta osasunaren sektoreetako enpresen kasuan %50 baino gehiago dira, %53 hain zuzen ere. Horietako erdietan langileen erdiak baino gehiago dira euskaldunak, eta laurdenetan ia guztiak dira euskaldunak. Dena den, irakaskuntzako enpresetan ehunekoa oso handia da, %73, eta osasun-sektoreko enpresetan, aitzitik, batez besteko ehunekoaren azpitik dago, %32koa da.
- Industria-enpresetako ehunekoa batez bestekoaren inguruan dago, %38, bai eta merkataritza eta ostalaritzaren sektorekoa, %36, eta banku eta aseguruen sektorekoa ere, %32.
- Batez bestekoa baino txikiagoa da bestelako zerbitzuetako enpresetan, %29, enpresa-zerbitzuen sektoreko enpresetan, %26, eta garraio eta komunikazioen sektoreko enpresetan, %24.
- Azkenik, eraikuntza-enpresetako ehunekoa batez bestekoaren erdia da, %18.



Ondoko taulak jardura-sektore bakoitzerako hainbat alderdi jasotzen ditu: enpresako batez besteko euskaldunen ehunekoa, euskaraz hitz egiten ia inork ez dakien enpresen ehunekoa, eta euskaraz hitz egiten erdiek baino gehiagok dakiten enpresen ehunekoa.

EUSKALDUNEN EHUNEKOA ENPRESAN

<i>Jardura-sektorea:</i>	<i>BATEZ BESTEKO</i>	<i>la inor ez</i>	<i>Erdiak baino gehiago</i>
Irakaskuntza - Osasuna	%53	%14	%46
Irakaskuntza	%73	%0	%68
Osasuna	%32	%28	%22
Industria	%38	%22	%28
Merkataritza - Ostalaritza	%36	%19	%28
Bankuak - Aseguruak	%32	%20	%14
Bestelako zerbitzuak	%29	%20	%14
Enpresa-zerbitzuak	%26	%18	%10
Garraioak - Komunikazioak	%24	%35	%6
Eraikuntza	%18	%46	%8


Jardura-sektoreen kasuan ez bezala, euskaldunen batez besteko ehunekoa ez da ia aldatzen enpresen tamainarekin. %34koa da 100 eta 250 langile arteko enpresetan, %36koa 251 eta 500 langile arteko enpresetan eta %37koa 500 langile baino gehiagokoetan.

Gainera, kontuan izan behar da zenbat eta enpresa handiagoa izan, orduan eta zailagoa izan daitekeela elkarrizketatutako pertsonak bertako euskaldunen

ehunekoa jakitea. Horrek, beraz, eragina izan dezake aurreko paragrafoan adierazitako aldaketa txiki horretan.

Izan ere, enpresako euskaldunen batez besteko ehunekoa antzematen diren alde handienak lurraldearen eta gune soziolinguistikoen arabera dira.

- %55ekoa Gipuzkoako enpresetan, %29koa Bizkaiko enpresetan eta %12koa Arabako enpresetan.
- %76koa 1. gune soziolinguistikoko enpresetan, %49koa 2. gune enpresetan, %35koa 3. gune enpresetan eta %18koa 4. gune enpresetan.



EUSKALDUNEN EHUNEKOA ENPRESAN

	BATEZ BESTEKO	la inor ez	Erdiak baino gehiago
<i>Langile-kopurua:</i>			
100etik 250era	%34	%27	%26
251tik 500era	%36	%15	%21
500 baino gehiago	%37	%14	%22
<i>Herrialdea:</i>			
Gipuzkoa	%55	%3	%45
Bizkaia	%29	%27	%17
Araba	%12	%53	%4
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>			
1. gunea	%76	%0	%86
2. gunea	%49	%8	%38
3. gunea	%35	%12	%17
4. gunea	%18	%42	%7

Azkenik, ez dago alderik enpresako euskaldunen batez besteko ehunekoan produktu edo zerbitzuen amaierako hartzailearen arabera eta merkatu geografikoaren arabera. Kapitalaren jatorriaren arabera soilik agertzen dira alde esanguratsuak. Hala, batez ere euskal kapitala duten enpresen kasuan euskaldunak %39 dira, eta batez ere kanpoko kapitala duten enpresetan %31 dira euskaldunak.

EUSKALDUNEN EHUNEKOA ENPRESAN


	<i>BATEZ BESTEKOA</i>	<i>la inor ez</i>	<i>Erdiak baino gehiago</i>
<i>Produktu/zerbitzuaren hartzailea:</i>			
Kontsumitzailea	%36	%23	%22
Beste enpresa bat	%35	%22	%26
<i>Non saltzen da?</i>			
Euskal Herrian	%35	%18	%23
Kanpoan	%35	%26	%27
<i>Kapitalaren jatorria:</i>			
Bertakoa	%39	%22	%31
Kanpoko	%31	%26	%21

HIZKUNTZ GAITASUNA KATEGORIEN ARABERA.

Enpresako langileen arteko euskaldunen ehunekoaz galdetu ondoren, datu bera langileen kategoriaren arabera eman zezaten eskatu zitzaizen elkarriketatuei, zuzendaritzako lanpostuetatik hasi eta produkzioko lanpostuetara arte.

Langileen kategoriaren arabera euskaldunen ehunekoan aldeak badaude ere, alde horiek ez dira oso handiak.

- Euskaldunen ehunekoa batez bestekoa baino zertxobait handiagoa da bezeroen arretarako langileen artean, %38.
- Batez bestekoaren parekoa da administrarien artean eta produkziokoan artean, %35 eta %34 hurrenez hurren.
- Eta batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa tarteko teknikari eta aginteen artean eta zuzendaritzakoan artean, %32 eta %31 hurrenez hurren.



Aintzat hartu diren enpresa-kolektibo guztietan joera orokor bera agertzen da. Euskaldunen ehunekoa batez bestekoa baino zertxobait handiagoa da bezeroen arretarako langileen artean, eta zertxobait txikiagoa zuzendaritzakoan eta teknikarien artean. Hona hemen daturik adierazgarrienak:

- Bestelako zerbitzuetako eta garraio eta komunikazioetako enpresetan bezeroen arretarako langileen artean %42 eta %38 dira euskaldunak hurrenez hurren. Sektore horietako batez bestekoak baino askoz ere handiagoak dira ehuneko horiek –%29ko eta %24ko batez bestekoak, hurrenez hurren–.
- Arabako enpresetan, euskaldunen ehunekorik handiena zuzendaritzako langileen artean gertatzen da, %18 hain zuzen ere.

- 4. gune soziolinguistikoko enpresetan ez da, euskaldunen ehunekoari dagokionez, ia alderik antzematen kategorien arabera, %16 inguru. Haatik, bezeroen arretarako langileen artean euskaldunak %22 dira.
- Azkenik, produktuen edo zerbitzuen amaierako hartzailearen arabera eta merkatu geografikoaren arabera, euskaldunen ehunekoa antzekoa da kategoria guztietan, bezeroen arretarako langileen artean izan ezik. Izatez, langile horien artean ehunekoa zertxobait handiagoa da zuzenean amaierako kontsumitzaileari saltzen diotenen eta Euskal Herrian saltzen dutenen artean.

EUSKALDUNEN EHUNEKOAK ENPRESAN KATEGORIAREN ARABERA

	GUZTIRA	Zuzenda- ritzakoak	Teknika- riak	Adminis- trariak	Bezeroen arretarako	Produktzioa
<i>Jarduera-sektorea:</i>						
Irakaskuntza - Osasuna	%53	%50	%50	%53	%56	%50
Irakaskuntza	%73	%70	%72	%72	%74	%66
Osasuna	%32	%29	%30	%32	%38	%32
Industria	%38	%33	%35	%38	%40	%37
Merkataritza - Ostalaritza	%36	%24	%27	%29	%39	%30
Bankuak - Aseguruak	%32	%31	%31	%35	%33	%33
Bestelako zerbitzuak	%29	%23	%24	%33	%42	%33
Enpresa-zerbitzuak	%26	%21	%26	%24	%27	%24
Garraioak - Komunikazioak	%24	%26	%20	%21	%38	%20
Eraikuntza	%18	%16	%15	%18	%21	%19
<i>Langile-kopurua:</i>						
100etik 250era	%34	%31	%32	%34	%37	%34
251tik 500era	%36	%30	%32	%35	%42	%35
500 baino gehiago	%37	%31	%36	%37	%38	%37
<i>Herrialdea:</i>						
Gipuzkoa	%55	%50	%54	%56	%58	%52
Bizkaia	%29	%22	%25	%27	%31	%29
Araba	%12	%18	%13	%12	%16	%10
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>						
1. gunea	%76	%65	%74	%75	%78	%76
2. gunea	%49	%41	%47	%51	%53	%47
3. gunea	%35	%31	%30	%35	%36	%35
4. gunea	%18	%17	%16	%16	%22	%16
<i>Produktu/zerbitzuaren hartzailea:</i>						
Kontsumitzailea	%36	%29	%33	%35	%41	%36
Beste enpresa bat	%35	%32	%33	%35	%37	%35
<i>Non saltzen da?</i>						
Euskal Herrian	%35	%30	%31	%34	%43	%32
Kanpoan	%35	%31	%32	%35	%35	%35
<i>Kapitalaren jatorria:</i>						
Bertakoa	%39	%35	%36	%38	%43	%38
Kanpokoa	%31	%24	%26	%30	%31	%30

2.- EUSKARAREN ERABILERA OROKORRA.


Atal honetan enpresaren jardueretan euskararen erabilera orokorra aztertuko da. Euskara dakiten langileen datuekin gertatzen den bezalaxe, oso enpresa gutxi neurtu dute euskararen erabilera orokorra enpresaren jardueretan. Hortaz, oraingoan ere elkarrizketatutako pertsonak hautematen duenari dagozkio erantzunak. 0 eta 10 arteko eskala eskaini zaie elkarrizketatuei, 0k euskara inoiz ez dela erabiltzen esan nahi du, eta 10ek euskara beti erabiltzen dela.

Hasteko, euskararen erabilera enpresan oro har aztertuko da eta, jarraian, komunikatzeko moduetan, hau da, orokorretik zehatzera joko da. Haatik, elkarrizketak egiterakoan, eta erantzunak errazteko, lehenengo alderdi zehatzenetako erabilerari buruz galdetu genuen eta, ondoren, enpresaren osotasuneko erabilerari buruz.

Azkenik, jakite-mailarekin gertatzen den moduan, elkarrizketatutako pertsonak euskararen erabilera ebaluatzean “baikor samarrak” dira. Bestalde, abiapuntuko enpresa-multzoko enpresa guztietan ezin izan dira elkarrizketak egin eta horrek ere zertxobait distortsionatu du emaitza. Hori dela-eta, erabilerari buruzko datuak ere zertxobait gainestimatuta egongo dira. Jakite-mailaren kasuan desbideratzea 100 puntutik 4 puntukoa izan zitekeen, eta joera bera mantentzen bada, kasu honetan desbideratzea 4 hamarrenekoa izan daiteke 0 eta 10 arteko eskalan.


Euskararen erabilera orokorra EAEko enpresa handietan batez beste 2,9koa da 0 eta 10 arteko eskalan. Horrenbestez:

- Enpresen herenek, %37k, ez dute inoiz edo ia inoiz erabiltzen (0-1 puntu eskalan).
- Enpresen laurdenek, %26k, gaztelania baino gehiago erabiltzen dute (2-3).
- Beste laurden batek, %29k, proportzio berean erabiltzen ditu biak (4-6).
- %8k soilik erabiltzen dute euskara gaztelania baino gehiago (7-10), eta %2k beti edo ia beti erabiltzen dute euskara (9-10).



Enpresako euskaldunen batez besteko ehunekoarekin gertatzen zen moduan, eta neurri handi batean horren eraginez, euskararen erabilera asko aldatzen da jarduera-sektorearen arabera.

- Ia bikoiztu egiten da batez besteko erabilera irakaskuntza eta osasunaren sektoreko enpresetan, batez beste 5 puntu (6,6 irakaskuntzako enpresetan eta 3,3 osasun-arloko enpresetan). Ehunekoetan, esan daiteke enpresen %14k ez dutela inoiz euskara erabiltzen, eta %30ean gaztelania baino gehiago erabiltzen dela.
- Banku eta aseguruaren sektoreko enpresetan euskararen erabilera batez bestekoa baino handiagoa da, 3,6 puntu (%20k ez dute inoiz erabiltzen eta %7k gaztelania baino gehiago erabiltzen dute).
- Bestelako zerbitzuetan euskararen erabilera batez bestekoaren ingurukoa da, 3,1 puntu, bai eta merkataritza eta ostalaritzakoetan eta garraio eta komunikazioetako enpresetan ere, 3,0 eta 2,6 hurrenez hurren.
- Batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa da beste enpresa batzuei zerbitzu egiten dieten enpresen kasuan, 2,2 (%48k ez dute ia inoiz erabiltzen eta %5ek gaztelania baino gehiago erabiltzen dute).
- Eraikuntzaren kasuan erabilera are txikiagoa da, 1,3 puntu (%62k ez dute inoiz erabiltzen, eta ez da enpresa batean ere gaztelania baino gehiago erabiltzen).



Aitzitik, euskararen erabilera ez da ia aldatzen enpresen tamainaren arabera, baina zertxobait gehiago erabiltzen da tamaina handieneko enpresetan. 100 eta 250 langile arteko enpresetan batez bestekoa baino zertxobait gutxiago,


2,7 puntu, eta zertxobait gehiago 251 eta 500 langile arteko enpresetan, 3,2 puntu, eta 500 langile baino gehiagoko enpresetan, 3,3 puntu.

EUSKARAREN ERABILERA OROKORRA ENPRESAN (0tik 10era)

<i>Batez bestekoak</i>	<i>BATEZ BESTEKOAK</i>	<i>la inoiz ez</i>	<i>Gaztelania baino gehiago</i>
<i>Jarduera-sektorea:</i>			
Irakaskuntza – Osasuna	5,0	%14	%30
Irakaskuntza	6,6	%0	%48
Osasuna	3,3	%28	%11
Bankuak – Aseguruak	3,6	%20	%7
Bestelako zerbitzuak	3,1	%33	%7
Merkataritza – Ostalaritza	3,0	%38	%6
Industria	2,8	%36	%8
Garraioak – Komunikazioak	2,6	%41	%0
Enpresa-zerbitzuak	2,2	%48	%5
Eraikuntza	1,3	%62	%0
<i>Langile-kopurua:</i>			
100etik 250era	2,7	%42	%8
251tik 500era	3,2	%25	%9
500 baino gehiago	3,3	%32	%9

Euskararen erabileran gertatzen diren alderik handienak lurraldearen eta gune soziolinguistikoaren arabera dira.

- Gipuzkoako enpresetan 4,4 puntukoa da, 2,3 puntukoa Bizkaiko enpresetan, eta 1,3 puntukoa Arabako enpresetan.
- 5,8 puntukoa 1. gune soziolinguistikoko enpresetan, 3,8 puntukoa 2. gune enpresetan, 3,0 puntukoa 3. gune enpresetan eta 1,6 puntukoa 4. gune enpresetan.



EUSKARAREN ERABILERA OROKORRA ENPRESAN (0tik 10era)

<i>Batez bestekoak</i>	<i>BATEZ BESTEKOAK</i>	<i>la inoiz ez</i>	<i>Gaztelania baino gehiago</i>
<i>Herrialdea:</i>			
Gipuzkoa	4,4	%11	%19
Bizkaia	2,3	%45	%3
Araba	1,3	%68	%2
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>			
1. gunea	5,8	%0	%29
2. gunea	3,8	%18	%13
3. gunea	3,0	%29	%8
4. gunea	1,6	%61	%2

Azkenik, ezberdintasun nabarmenak daude euskararen erabileran produktuen edo zerbitzuen amaierako hartzaileari, merkatu geografikoari eta kapitalaren jatorriari dagokionez.

- 3,3 puntukoa da zuzenean amaierako kontsumitzaileari saltzen dioten enpresen kasuan eta 2,6 puntukoa beste enpresa bati saltzen dioten kasuan.
- 3,4 puntukoa da batez ere Euskal Herrian saltzen duten enpresen kasuan eta 2,4 puntukoa kanpoan batik bat saltzen dutenen kasuan.
- 3,3 puntukoa batez ere euskal kapitala duten enpresetan eta 2,4 puntukoa kanpoko kapitala batik bat duten enpresen kasuan.


EUSKARAREN ERABILERA OROKORRA ENPRESAN (0tik 10era)

<i>Batez bestekoak</i>	<i>BATEZ BESTEKOAK</i>	<i>la inoiz ez</i>	<i>Gaztelania baino gehiago</i>
<i>Produktu/zerbitzuaren hartzailea:</i>			
Kontsumitzailea	3,3	%31	%11
Beste enpresa bat	2,6	%40	%6
<i>Non saltzen da?</i>			
Euskal Herrian	3,4	%31	%11
Kanpoan	2,4	%44	%4
<i>Kapitalaren jatorria:</i>			
Bertakoa	3,3	%28	%10
Kanpoko	2,4	%46	%5

ERABILERAREN ETA HIZKUNTZ GAITASUNAREN ARTEKO ERLAZIOA.

Espero zitekeen moduan, euskararen erabileraren eta enpresako euskaldunen ehunekoaren artean oso erlazioa handia dago, bi aldagai horien arteko korrelazio-koefizientea oso handia da, 0,85.

Haatik, taulan ikus dezakegunez, norabide batean korrelazioa ia zuzena den arren –erabileraren ehunekoak ez du, oro har, enpresako euskaldunen ehunekoa gainditzen–, beste norabidean ez da horrenbestekoa –ez da enpresako euskaldunen ehunekoak aukera ematen duen adina erabiltzen euskara–. Esate baterako, enpresako ia langile guztiak euskaldunak direnean, enpresen %2an gehiago erabiltzen da gaztelania, %41ean berdin erabiltzen dira bi hizkuntzak, %29an gehiago erabiltzen da euskara, eta %27an beti erabiltzen da euskara.



ERABILERA ENPRESAN, EUSKALDUNEN PROPORTZIOAREN ARABERA

% Bertikalak	la inork ere ez	Laurdenek edo gutxiagok	Erdiek edo gutxiagok	Erdiek baino gehiagok	la denek
Beti euskaraz	%0	%0	%0	%0	%27
Euskaraz gehiago	%0	%0	%1	%16	%29
Bietan berdin	%0	%10	%53	%64	%41
Gaztelaniaz gehiago	%9	%42	%39	%19	%2
Euskaraz inoiz ez	%91	%48	%7	%1	%0

Aintzat hartu diren enpresa-kolektiboetan, interesgarriagoa izan daiteke euskararen erabileraren eta enpresako euskaldunen ehunekoaren arteko erlazioa aztertzea.

Azterketa hori egiteko modurik sinpleena ondoko adierazlea erabiltzea da:

$$U = \frac{10 \times \text{erabilera, 0 eta 10 arteko eskalan}}{\text{Euskaldunen \%}}$$

Enpresetarako, oro har, ondokoa da adierazle hori: $U = 10 \times 2,9 / 35 = 0,83$. Adierazle horrek enpresako euskaldunen ehunekoaren ondorioz lortzen den erabilpena edo erabilera-errentagarritasuna adierazten du.

Logika hutsez, adierazle hori handiagoa izango da, oro har, enpresako batez besteko euskaldunen ehunekoa txikia den kasuetan. Argi eta garbi antzeman daiteke hori lurraldeen eta gune soziolinguistikoen adierazlea aztertzen denean:

- Arabako enpresetan 1,08koa da, Gipuzkoako eta Bizkaiko enpresetan baino handiagoa, 0,80 eta 0,79 hurrenez hurren.
- Gune soziolinguistikoen arabera, adierazlea gehitu egiten da euskaldunen ehunekoa txikiagoa den heinean: 0,76 1. guneko enpresetan, 0,78 2. gunekoetan, 0,86 3. gunekoetan eta 0,89 4. gunekoetan.

Hala ere, jarduera-sektoreen arabera adierazlea aztertzean, ez da arau orokor hori betetzen, eta beren jakite-mailari zein sektorek ateratzen dion erabilera-etekin handiagoa adierazten du. Hortaz:

- Zerbitzu-sektore gehienetan batez bestekoa baino nabarmen handiagoa da: banku eta aseguru sektorean 1,13, garraio eta komunikazioen sektorean 1,08, bestelako zerbitzuetan 1,07, eta irakaskuntza eta osasunaren sektorean 0,94 (0,90 irakaskuntzako sektorean eta 1,03 osasunaren sektorean).
- Enpresa-zerbitzuen sektorean batez bestekoaren antzekoa da, 0,85, bai eta merkataritza eta ostalaritzaren sektorean ere, 0,83.
- Batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa da industria-sektoreko enpresetan, 0,74, eta eraikuntza-sektoreko enpresetan, 0,72.

Jarduera-sektoreen arabera erabileraren etekinean antzematen diren alde horien azalpena, neurri handi batean bederen, produktu edo zerbitzuen hartzaileen arloan eta merkatu geografikoaren arloan dauden aldeetan datza. Aldagai horien arabera euskaldunen ehunekoa oso parekoa den arren, %35 inguru, alde handiak antzematen dira erabilera-etekinari dagokionez:

- Zuzenean amaierako kontsumitzaileari saltzen dioten enpresen kasuan 0,92 eta beste enpresa batzuei saltzen dioten enpresen kasuan 0,74.
- Euskal Herrian batez ere saltzen duten enpresen kasuan 0,97 eta kanpoan batez ere saltzen duten enpresen kasuan 0,69.

EUSKARAREN ERABILERARI BURUZKO BALORAZIOAK.


Elkarrizketatutako pertsonen galdetu zaienean euskararen erabilera beren enpresan txikiegia edo egokia den, batez beste lortutako puntuazioa 4,6 puntukoa izan da 0 eta 10 arteko eskalan (0 txikiegia eta 10 oso egokia). %20k oso egokitzen jo dute euskararen erabilera beren enpresan (9-10), %14k egokitzen (7-8), %21ek ez txiki ez egokitzen (4-6), %16k txikitzen (2-3) eta %29k oso txikitzen (0-1).

Hau da, herenek, %34k, egokitzen jo dute euskararen erabilera beren enpresan, eta erdiek baino zertxobait gutxiagok, %45ek, txikitzen jo dute.

Nolanahi ere, emaitzak ez dira oso baliagarriak, baldin eta ez bada enpresan gertatzen den euskararen erabilera aintzat hartzen.

Nabarmendu behar da euskara inoiz erabiltzen ez duten enpresen herenek baino gehiagok, %37k, egokitzen jotzen dutela euskararen erabilera, eta erdiek, %51k, txikitzen jotzen dutela.

Erabileraren araberako gainerako kolektiboetan, gaztelania gutxien erabiltzen duten enpresetan %21ek egokitzen jotzen dute euskararen erabilera, euskara eta gaztelania antzeko proportzioan erabiltzen dituzten enpresetan %27k, euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen duten enpresetan %74k, eta ia beti euskara erabiltzen duten enpresetan %91k. Bestalde, gaztelania baino gutxiago erabiltzen duten enpresetan %53k txikitzen jotzen dute euskararen erabilera; gaztelania eta euskara antzeko proportzioan erabiltzen duten enpresetan %40k jotzen dute, eta gaztelania baino gehiago erabiltzen duten artean %15ek.



ERABILERA: TXIKIEGIA ALA EGOKIA?

% Bertikalak	GUZTIRA	Inoiz ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti
Oso egokia	%20	%23	%9	%14	%48	%91
Egokia	%14	%14	%12	%13	%26	%0
Ez txikia ez egokia	%21	%12	%26	%32	%11	%9
Txikia	%16	%12	%22	%19	%11	%0
Txikiegia	%29	%39	%31	%21	%4	%0

Ez dago alde handirik aintzat hartutako enpresa-kolektiboetako pertsonen egiten dituzten balorazioen artean. Oro har, euskara gehien erabiltzen duten kolektiboetan euskararen erabilera egokia dela uste dutenen ehunekoa batez bestekoa baino handiagoa da, %34.

- Irakaskuntza eta osasunaren sektoreko enpresetan %43, banku eta asegurueto enpresetan %40, eta eraikuntza-enpresetan %42, nahiz eta azken horiek diren euskara gutxien erabiltzen duten enpresak.
- 1. gune soziolinguistikoko enpresetan %44, eta 4. gunekoetan %38, nahiz eta azken horiek diren euskara gutxien erabiltzen duten enpresak.
- Amaierako kontsumitzaileari saltzen dioten enpresetan %38, eta batez ere euskal kapitala duten enpresetan %46.


Elkarrizketatutako pertsonen beren iritziz euskararen erabilera enpresarako garrantzitsua den galdetu zaienean, batez beste 3,5 puntuko emaitza lortu da 0 eta 10 arteko eskalan (0 batere garrantzirik ez eta 10 oso garrantzitsua). Enpresen %24k oso garrantzitsutzat jo dute (9-10), %21ek nahiko garrantzitsutzat jo dute (7-8), %20ren iritziz ez da ez garrantzi handikotzat ez txikikotzat (4-6), %15en ustez garrantzi txikia du (2-3), eta %21en iritziz batere garrantzirik ez du (0-1).

Hots, ia erdien ustez, %45en ustez hain zuzen ere, oso garrantzitsua edo nahiko garrantzitsua da, eta herenek baino gehiagok, %36k garrantzi txikia edo batere garrantzirik ez duela uste dute.

Inoiz erabiltzen ez duten enpresen artean %10ek soilik uste dute oso garrantzitsua edo nahiko garrantzitsua dela, eta hiru laurdunek, %72k, garrantzi txikia edo batere garrantzirik ez duela uste dute.

EUSKARAREN ERABILERAREN GARRANTZIA ERABILERAREN ARABERA

% Bertikalak	GUZTIRA	Inoiz ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti
Oso garrantzitsua	%24	%4	%16	%39	%78	%100
Nahiko garrantzitsua	%21	%6	%21	%43	%15	%0
Ez handia, ez txikia	%20	%19	%35	%12	%4	%0
Garrantzi txikia	%15	%25	%17	%2	%4	%0
Batere garrantzirik ez	%21	%47	%11	%4	%0	%0



Euskarari ematen zaion garrantzia nabarmen aldatzen da enpresa-kolektibo batzuetatik beste batzuetara. Arau orokor gisa, euskararen erabilera gehiago baloratzen da euskara gehien erabiltzen duten enpresetan.


Jarduera-sektoreen arabera, garrantzi handiagoa ematen diote irakaskuntza eta osasunaren sektoreko enpresek (%70ek oso/nahiko garrantzitsutzat jotzen dute), bestelako zerbitzuetako enpresek (%67), banku eta aseguruaren sektoreko enpresek (%66), garraio eta komunikazioetako enpresek (%58) eta merkataritza eta ostalaritzako enpresek (%55). Aitzitik, garrantzia gutxien ematen diote enpresa-zerbitzuetako enpresek (%36) eta, batez ere, eraikuntza-enpresek (%19).

Tamainaren arabera, garrantzia handia ematen diote 500 langile baino gehiagoko enpresek (%60) eta 251 eta 500 langile arteko enpresek (%55), eta garrantzia txikiagoa ematen diote 250 langile baino gutxiagoko enpresek (%37).

Lurraldeen arabera, Gipuzkoan %65ek uste dute garrantzitsua dela, Bizkaian %37k eta Araban %22k. Gune soziolinguistikoen arabera, berriz, 1. guneko %77k, 2. guneko %58k, 3. guneko %42k eta 4. guneko %29k.

Azkenik, garrantzia handia ematen zaio Euskal Herrian saltzen duten enpresetan (%58), amaierako kontsumitzaileari saltzen dioten enpresetan (%53) eta euskal kapitala duten enpresetan (%52). Eta garrantzi txikiagoa ematen zaio kanpoan saltzen duten enpresetan (%33), beste enpresa batzuei saltzen dieten enpresetan (%38) eta kanpoko kapitala duten enpresetan (%30).

Atal honi amaiera emateko, kontuan izan behar dugu elkarriketatutako pertsonen erdiek, %53k, uste dutela euskara erabiltzeak beren enpresetarako alde onak dituela, eta seirenek, %17k, soilik uste dutela alde txarrak dituela.



Euskararen erabilerak alde onak dituela uste duten enpresa-kolektiboak bat datoz, oro har, euskararen erabilerari garrantzia gehien ematen dioten eta praktikan gehien erabiltzen duten enpresa-kolektiboekin. Izatez:

- Alde onak dituela uste dute garraio eta komunikazioetako enpresen %76k, irakaskuntza eta osasuneko enpresen %73k, banku eta aseguruaren sektoreko enpresen %73k, merkataritza eta ostalaritzako enpresen %69k, eta bestelako zerbitzuetako enpresen %67k.
- Alde onak dituela uste dute 500 langile dituzten enpresen %69k, eta 251 eta 500 langile artean dituzten enpresen %60k.
- Alde onak dituela uste dute Gipuzkoan dauden enpresen %66k, 1. gune soziolinguistikoan dauden enpresen %68k eta 2. gune soziolinguistikoko enpresen %60k.
- Alde onak dituela uste dute Euskal Herrian saltzen duten enpresen %67k, amaierako kontsumitzaileari saltzen dioten %59k, eta euskal kapitala dutenen %58k.

Aitzitik, kolektiboen arabera ez dago alde handirik euskararen erabilerak alde txarrak dituela uste dutenen ehunekoetan. Ehunekorik handienak Arabako enpresetan (%27), 500 langile baino gehiagoko enpresetan (%25), eta eraikuntza-enpresetan (%23) gertatzen dira.

Euskararen erabilerak enpresetarako dituen alde onen artean ondokoak nabarmendu zituzten elkarrizketatutako pertsonak:

- Komunikazioaren hobekuntzarekin lotzen direnak: bertako hizkuntza da (%34), bezeroekin erabiltzea (%42), hornitzaileekin erabiltzea (%5), langileen artean erabiltzea (%11), guztiekin erabiltzea (%11).
- Lan-giro hobe sortzea (%10).
- Irudiagatik (%9), zerbitzua hobetzea (%5) edo merkatua zabaltzea (%3).
- Hizkuntza mantentzea (%16).

Eta alde txarren artean ondokoak adierazten dira:


- Langileek hizkuntza ez jakitea (%44) edo bezeroek hizkuntza ez jakitea (%20).
- Itzuli beharra - lan gehiago (%22), denbora gehiago behar izatea (%6), eta kostu handia (%16)
- Prestakuntzaren beharra (%6).
- Bereizkeria (%9) eta euskararen politizazioa (%4).

3.- EUSKARAREN ERABILERA KOMUNIKATZEKO MODUETAN.

Euskararen erabilera orokorra enpresaren jardueretan aztertu ondoren, honako atal honetan euskararen erabilera komunikatzeko moduetan aztertuko da: ahozko barnekoan, idatzizko barnekoan, ahozko kanpokoan eta idatzizko kanpokoan.

Erabilera orokorrarekin gertatzen zen moduan, elkarrizketatutako pertsonen komunikatzeko moduetan gertatzen den euskararen erabilerari dagokionez haute-maten dutenari dagozkio biltzen diren erantzunak, eta erantzunak “baikor samarrak” izateko joera nabari da. Horrez gain, kontuan izan behar dugu abiapuntuko enpresa-multzoko enpresa guztietan ezin izan direla elkarrizketak egin, eta horrek nolabaiteko distortsioa eragin duela. Horrenbestez, erabilerari buruzko emaitzak zertxobait gainestimatuta egongo dira; alabaina, errealitatearekiko desbideratzea txikia izango da segur aski, hamarren batzuetakoa besterik ez.

Euskararen erabilera EAEko enpresa handietako komunikatzeko moduetan ez da ia aldatzen eta enpresaren jardueretan orokorrean egiten zen erabileraren antzekoa da. 0 eta 10 arteko batez besteko puntuazioak bat datoz erabilera orokorrarekin –2,9 puntu– ahozko barne-komunikazioan eta idatzizko kanpo-komunikazioan, eta zertxobait handiagoa da, 3,2 puntu, idatzizko barne-komunikazioan eta ahozko kanpo-komunikazioan.



Emaizta horien arabera, erraz ondoriozta daiteke erlazio handia dagoela komunikatzeko moduetan gertatzen den erabileraren eta enpresako erabilera orokorraren artean. Izan ere, erabilera orokorraren eta komunikatzeko moduetako erabileraren arteko korrelazioa oso handia da, 0,91koa ahozko barneko komunikazioaren erabileraren kasuan, 0,74koa idatzizko barneko eta ahozko kanpoko komunikazioen erabileraren kasuan, eta 0,63koa idatzizko kanpoko komunikazioaren erabileraren kasuan.

Komunikatzeko moduetako erabilerek enpresako erabilera orokorraren aldaketaren %95 argitzen dute. Ahozko barneko komunikazioko erabilerak aldaketaren %83 argitzen du ($R^2=0,83$), hala ere, azalpen horren zati bat beste hiru komunikatzeko moduetako erabilerekin partekatzen da. Komunikatzeko moduetako erabilerak aldagai independente bihurtzeko faktore-analisia aplikatu ostean, egiaztatu ahal izan da ahozko barneko komunikazioaren erabilerak erabilera orokorraren %49 argitzen duela, idatzizko barneko komunikazioaren erabilerak %19 argitzen duela, ahozko kanpoko komunikazioaren erabilerak %18 argitzen duela, eta idatzizko barneko komunikazioaren erabilerak %9 argitzen duela.


Hori dela-eta, erabilera orokorra ebaluatzeko garaian, elkarriketatutako pertsonen batez ere ahozko barneko komunikazioaren erabilera hartu dute aintzat, jakinda edo jakin gabe.

Bestalde, azterketarekin jarraitu aurretik, emaitzak hobe interpretatzeko lagungarriak izan daitezkeen bi alderdi argitu behar dira:

1. Lehenik, barneko zein kanpoko idatzizko komunikazioaren erabilera ebaluatzean, euskararen edo gaztelaniaren erabilera ez da baztertzailerik, hau da, komunikazioa elebiduna izan daiteke. Kasu horietan euskara erabiltzen denean, gaztelania ere erabil daiteke.
2. Bigarren, euskara erabili ohi duten enpresa batzuetan ahozko kanpoko komunikazioaren erabilerari buruzko datuak biltzeko zailtasunak izan dira. Datu hori, hain zuzen ere, izan da ebaluatzeko zailena, eta elkarriketatutako pertsona askok ondoko prozedura erabili dute: solaskide euskaldunekin izan den erabilera aztertu dute, eta, ondoren, guztizkoaren gaineko solaskide euskaldunen proportzioa ebaluatu dute. Hala, nolabaiteko batez besteko haztatua kalkulatu dute. Eta hori guztia bat-batean eta intuizioz egin dute. Bezero, hornitzaile eta abarren artean euskaldunen proportzioa gutxi gorabehera ezagutzen denez gero, emaitzazko erabilera errealitaterako hurbiltze bat besterik ez da, eta, txosten honetan orain arte egiaztatutako arauari jarraituz, errealitatekoa baino zertxobait handiagoa da.

O eta 10 arteko eskalan lortutako erabileraren batez besteko puntuazioetan ondoko ehunekoak gertatu dira:

- Ahozko barne-komunikazioan (batez beste 2,9 puntu), enpresen %39k ez dute inoiz edo ia inoiz euskara erabiltzen, eta %10ek gaztelania baino gehiago erabiltzen dute.
- Ahozko kanpo-komunikazioan (3,2 puntu), enpresen %43k ez dute inoiz edo ia inoiz euskara erabiltzen, eta %19k gaztelania baino gehiago erabiltzen dute.
- Idatzizko barne-komunikazioan (3,2 puntu), enpresen %46k ez dute inoiz edo ia inoiz euskara erabiltzen, eta %22k kasu erdietan baino gehiagotan erabiltzen dute (bakarrik edo gaztelaniarekin batera).
- Idatzizko kanpo-komunikazioan (2,9 puntu), enpresen %56k ez dute inoiz edo ia inoiz euskara erabiltzen, eta %23k kasu erdietan baino gehiagotan erabiltzen dute (bakarrik edo gaztelaniarekin batera).



EUSKARAREN ERABILERA KOMUNIKATZEKO MODUETAN


% Bertikalak	OROKORRA	Ahozko barnekoa	Ahozko kanpoko	Idatzizko barnekoa	Idatzizko kanpoko
Beti euskaraz	%2	%3	%10	%14	%18
Erdietan baino gehiagotan	%6	%7	%9	%8	%5
Erdietan	%29	%27	%21	%14	%9
Erdietan baino gutxiagotan	%26	%24	%17	%17	%11
Inoiz ez euskaraz	%37	%39	%43	%46	%56

Dena den, komunikatzeko moduetako batez besteko erabilera antzekoa den arren, eta beren artean erlazio handi samarra dagoen arren, ez da homogeneoa. Enpresa askok euskara ahozko komunikazioan erabiltzen dute, baina ez idatzizkoan edo alderantziz.

Euskararen erabilerrari dagokionez gertatzen diren konbinazioak hautemateko, komunikatzeko moduetarako erabilera-tipologia bat landu da.

Lehenik, lau erabilera-motetarako faktore-analisia aplikatu da, eta lehen bi faktoreek aldakuntzaren %82 argitzen dutela ikusirik, bi faktore horiek hartu dira abiapuntu bidezko tipologia lantzeko. Hau da, euskararen ahozko erabilera (barnekoa kanpokoa baino gehiago) eta idatzizko erabilera (kanpokoa barnekoa baino gehiago) jasotzen duten bi faktore horiek hartu dira abiapuntu. Eraitzazko tipologiak bederatzi enpresa-talde bereizten ditu, eta talde horiek bi faktoreen aldakuntzaren %90 argitzen dute.

Ondoko grafikoan tipologia-taldeak irudikatzen dira bi faktoreek osatzen duten planoan (ardatz horizontalean ahozko erabilera eta bertikalean idatzizko erabilera). Koordinatuen zentroa bat dator batez besteko enpresarekin, hau da, ondoko puntuazioak dituen enpresarekin: 2,9 ahozko barneko erabileran, 3,2 ahozko kanpoko erabileran, 3,2 idatzizko barneko erabileran eta 2,9 idatzizko kanpoko erabileran.



TIPOLOGIA KOMUNIKATZEKO MODUETAKO ERABILERAREN ARABERA

Batez bestekoak	GUZTIRA	1. T	2. T	3. T	4. T	5. T	6. T	7. T	8. T	9. T
Ehunekoak	%100	%33	%6	%4	%18	%13	%10	%8	%4	%4
Orokorra	2,9	0,4	2,6	3,9	2,3	3,6	5,4	4,5	7,1	8,6
Ahozko barnekoa	2,9	0,4	1,7	1,9	3,1	3,6	4,5	5,9	7,3	8,5
Ahozko kanpokoak	3,2	0,5	3,0	4,5	1,9	3,6	7,4	5,6	7,6	9,3
Idatzizko barnekoa	3,2	0,7	4,5	8,3	1,2	4,3	7,7	1,3	7,4	9,5
Idatzizko kanpokoak	2,9	0,3	7,1	9,6	0,3	4,1	9,3	0,4	2,5	9,3

Lehen hiru taldeak ahozko komunikazioan (batez ere barnekoan) euskara ia erabiltzen ez duten enpresek osatzen dituzte, eta guztizkoaren %43 dira. Enpresa horietako gehienak Bizkaiko eta Arabako gune erdaldunetan daude (<%45 euskaldun).

- 1. taldea** (guztizkoaren %33). Talderik handiena da, euskara inoiz erabiltzen ez duten enpresek osatzen dute: 0,4 puntu erabilera orokorrean (0,4 ahozko barnekoan, 0,5 ahozko kanpokoan, 0,7 idatzizko barnekoan eta 0,3 idatzizko kanpokoan).

Sektoreen arabera banaketa enpresen banaketaren antzekoa da, %55 industria-sektorekoak dira. Haatik, beste enpresa batzuei zerbitzu egiten dieten enpresen proportzioa handia da, %17, bai eta eraikuntza-enpresena ere, %10. Gehienak 100 eta 250 langile arteko enpresak dira, beren produktuak edo zerbitzuak batez ere kanpoko beste enpresa batzuei saltzen dizkietenak.

- 2. taldea** (%6). Ahozko barne-komunikazioan oso gutxi erabiltzen dute euskara (1,7), zertxobait ahozko barnekoan (3,0) eta nahiko edo asko idatzizko komunikazioan (4,5 barnekoan eta 7,1 kanpokoan).

Gehienak zerbitzu-sektorekoak dira (ia erdia merkataritza eta ostalaritzakoak, garraio eta telekomunikazioetakoak eta banku eta aseguruaren sektorekoak), eta herenek baino gehiagok 500 langile baino gehiago dituzte.

Euskal kapitala dute eta beren zerbitzu edo produktuak batez ere Euskal Herrian saltzen dituzte, enpresei zein amaierako kontsumitzaileari.

- 3. taldea** (%4). Oso gutxi erabiltzen dute euskara ahozko barne-komunikazioan (1,9), nahiko ahozko kanpokoan (4,5) eta ia beti idatzizko komunikazioan (8,3 barnekoan eta 9,6 kanpokoan).

Gehienak zerbitzu-sektorekoak dira (herenak irakaskuntza eta osasunaren sektorekoak), eta %40k 500 langile baino gehiago dute.

Euskal kapitala dute eta beren zerbitzu edo produktuak Euskal Herrian saltzen dituzte, batez ere amaierako kontsumitzaileari.

Hurrengo hiru taldeetan ahozko komunikazioan euskara gaztelania baino gutxiago (edo proportzio berean) erabiltzen duten enpresak daude, guztizkoaren %41 dira. Gehienak 2. eta 3. gune soziolinguistikoan daude (%20-80 euskaldunak), eta enpresen erdiak baino gehiagok Gipuzkoan daude.

4. **4. taldea** (%18). Ahozko barne-komunikazioan euskara zertxobait edo nahiko erabiltzen dute (3,1), gutxi ahozko kanpokoan (1,9) eta oso gutxi edo ezer ez idatzizko komunikazioan (1,2 barnekoan eta 0,3 kanpokoan).
Gehienak industria-sektorekoak dira eta beren produktuak beste enpresa batzuei saltzen dizkiete, Euskal Herritik kanpo batik bat.
5. **5. taldea** (%13). Gaztelania baino proportzio txikiagoan bada ere, nahiko erabiltzen dute euskara, ahozko komunikazioan (3,6 barnekoan eta 3,6 kanpokoan) zein idatzizkoan (4,3 barnekoan eta 4,1 kanpokoan).
Batez besteko profilaren antzeko profila dute, kokapen geografikoan izan ezik (2 eta 3. gune soziolinguistikokoak dira, erdiak baino gehiago Gipuzkoan daude).
6. **6. taldea** (%10). Nahiko erabiltzen dute euskara ahozko barne-komunikazioan (4,5), asko ahozko kanpokoan (7,4) eta idatzizko barnekoan (7,7), eta beti idatzizko kanpokoan (9,3).
Gehienak zerbitzu-sektorekoak dira –bere jarduera-adar guztietan–, euskal kapitala dute, eta beren produktuak edo zerbitzuak Euskal Herrian saltzen dituzte, batez ere, amaierako kontsumitzaileari.

Azken hiru taldeetan ahozko komunikazioan euskara gaztelaniaren proportzio berean edo handiagoan erabiltzen duten enpresak daude, guztizkoaren %16 dira. Gehienak gune euskaldunetan daude (>%40 euskaldun), eta erdiak baino gehiago Gipuzkoan daude.

7. **7. taldea** (%8). Ahozko komunikazioan euskara gaztelaniaren proportzio berean edo handiagoan erabiltzen dute (5,9 barnekoan eta 5,6 kanpokoan), eta oso gutxi edo ezer ez dute erabiltzen idatzizkoan (1,3 barnekoan eta 0,4 kanpokoan).
Ia guztiak industria-sektorekoak dira eta 100 eta 250 langile artekoak dira.
Gehienak Bizkaian daude eta beren produktuak beste enpresa batzuei saltzen dizkiete, Euskal Herritik kanpo batik bat.
8. **8. taldea** (%4). Euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dute ahozko komunikazioan (7,3 barnekoan eta 7,6 kanpokoan) eta idatzizko barnekoan (7,4), baina nahiko gutxi erabiltzen dute idatzizko kanpokoan (2,5).
Ia denak industria-sektorekoak dira, Gipuzkoan daude, eta beren produktuak beste enpresa batzuei saltzen dizkiete.
9. **9. taldea** (%4). Ia beti euskara erabiltzen dute beren jarduera guztietan, 8,6 erabilera orokorrean (8,5 ahozko barnekoan, 9,3 ahozko kanpokoan, 9,5 idatzizko barnekoan eta 9,3 idatzizko kanpokoan).
Bi herenak zerbitzu-sektorekoak dira (ia erdiak irakaskuntzaren sektorekoak) eta herenak industriaren sektorekoak dira.
Gehienak Gipuzkoako 2 eta 3. guneetan dauden 100 eta 250 langile arteko enpresak dira, euskal kapitalekoak dira, eta beren produktuak edo zerbitzuak Euskal Herrian saltzen dituzte, batez ere amaierako kontsumitzaileari.

Aurreko atalean aztertutako euskararen erabilera orokorreko aldagaiaren eta tipologiaren arteko lotura oso ona da: 1. taldeak eta 2. taldearen erdiak ez dute inoiz euskara erabiltzen; gaztelania gehiago erabiltzen dute 2. taldeko beste

erdiak, 3. taldeak, 4. taldearen zati handi batek eta 5. taldearen erdiak; bi hizkuntzak berdin erabiltzen dituzte 4 eta 6. taldeetako beste zatiek eta 6 eta 7. taldeek; eta gehiago erabiltzen dute euskara 8 eta 9. taldeek.

TIPOLOGIA KOMUNIKATZEKO MODUETAKO ERABILERAREN ARABERA


% Bertikalak	GUZTIRA	1. T	2. T	3. T	4. T	5. T	6. T	7. T	8. T	9. T
Ehunekoa	%100	%33	%6	%4	%18	%13	%10	%8	%4	%4
Erabilera oro har	2,9	0,4	2,6	3,9	2,3	3,6	5,4	4,5	7,1	8,6
<i>Jarduera-sektorea:</i>										
Industria	%56	%55	%27	%25	%76	%53	%24	%86	%94	%35
Eraikuntza	%6	%10	%4	%0	%7	%2	%0	%9	%0	%0
Enpresa-zerbitzuak	%13	%17	%12	%15	%10	%21	%16	%0	%0	%5
Garraioak - Komunikazioak	%4	%3	%15	%10	%1	%2	%9	%0	%0	%0
Merkataritza - Ostalaritza	%7	%6	%15	%5	%5	%9	%13	%3	%6	%5
Bestelako zerbitzuak	%3	%4	%4	%5	%0	%2	%11	%0	%0	%5
Bankuak - Aseguruak	%3	%1	%15	%10	%1	%3	%7	%0	%0	%5
Irakaskuntza - Osasuna	%8	%3	%8	%30	%0	%9	%20	%3	%0	%45
Irakaskuntza	%4	%0	%4	%15	%0	%3	%11	%0	%0	%40
Osasuna	%4	%3	%4	%15	%0	%5	%9	%3	%0	%5
<i>Langile-kopurua:</i>										
100etik 250era	%67	%76	%42	%35	%61	%59	%64	%86	%56	%85
251tik 500era	%20	%15	%23	%25	%28	%24	%16	%11	%39	%0
500 baino gehiago	%14	%9	%35	%40	%11	%17	%20	%3	%6	%15
<i>Herrialdea:</i>										
Gipuzkoa	%32	%9	%19	%25	%35	%59	%51	%37	%61	%75
Bizkaia	%55	%66	%69	%60	%55	%34	%47	%63	%39	%20
Araba	%13	%26	%12	%15	%10	%7	%2	%0	%0	%5
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>										
1. gunea	%6	%0	%0	%0	%0	%10	%2	%31	%50	%5
2. gunea	%32	%13	%15	%25	%49	%43	%36	%49	%50	%50
3. gunea	%21	%16	%27	%10	%25	%29	%31	%6	%0	%35
4. gunea	%41	%71	%58	%65	%25	%17	%31	%14	%0	%10
<i>Produktu/zerbitzuaren hartzailea:</i>										
Kontsumitzailea	%34	%29	%50	%70	%22	%33	%56	%23	%28	%55
Biak	%7	%9	%8	%5	%6	%9	%11	%3	%0	%10
Beste enpresa bat	%58	%62	%42	%25	%72	%59	%33	%74	%72	%35
<i>Non saltzen da?</i>										
Euskal Herrian	%29	%22	%62	%75	%14	%24	%53	%14	%11	%50
Bietan	%14	%19	%4	%10	%10	%14	%7	%20	%28	%5
Kanpoan	%37	%44	%23	%10	%46	%38	%9	%54	%39	%10
Ee/Ed	%21	%15	%12	%5	%30	%24	%31	%11	%22	%35
<i>Kapitalaren jatorria:</i>										
Bertakoa	%47	%36	%62	%90	%33	%48	%64	%51	%46	%65
Bietakoa	%5	%7	%8	%0	%6	%5	%0	%0	%17	%0
Kanpokoa	%19	%25	%8	%0	%24	%16	%9	%29	%6	%15
Ee/Ed	%29	%32	%23	%10	%37	%31	%27	%20	%22	%20

EUSKARAREN ERABILERA AHOZKO BARNE-KOMUNIKAZIOAN.

Aurreko atalean ikusi dugu euskararen erabilera ahozko barne-komunikazioan bat datorrela, neurri handi batean, enpresaren jardueretan gertatzen den euskararen erabilera orokorrarekin.

0 eta 10 arteko eskalan 2,9 puntu lortu dira, baina puntuazio hori asko aldatzen da aintzat hartutako esparruen edo jardueren arabera:


- Euskararen erabilera zertxobait handiagoa da bozgorailu bidezko mezuetan, 3,3 puntu, eta langileen arteko komunikazioan, 3,3 puntu.
- Eta askoz txikiagoa da taldeko bileretan, 1,5 puntu, eta zuzendaritzako bileretan, 1,2 puntu



Batez besteko puntuazio horietan kontuan izan behar da enpresen %39k ez dutela inoiz edo ia inoiz erabiltzen euskara ahozko barne-komunikazioan, eta %10ek gaztelania baino gehiago erabiltzen dutela. Bestalde, esparru edo jardueren arabera:

- Enpresen %61ek ez dute euskara erabiltzen bozgorailu bidezko mezuetan, eta %29k gaztelania baino gehiago erabiltzen dute.
- Enpresen %33an langileek ez dute inoiz beren artean euskara erabiltzen, eta %15ean gaztelania baino gehiago erabiltzen dute.
- Enpresen %71n ez da taldeko bileretan euskara inoiz erabiltzen, eta %7an gaztelania baino gehiago erabiltzen da.
- Enpresen %78an ez da inoiz erabiltzen zuzendaritzako bileretan, eta %8an gaztelania baino gehiago erabiltzen da.

AHOZKO BARNE-KOMUNIKAZIOAREN ERABILERA



EUSKARAREN ERABILERA AHOZKO BARNE-KOMUNIKAZIOAN

% Bertikalak	AHOZKO BARNEKOA	Bozgorailuz	Langileek beren artean	Taldeko bileretan	Zuzendari. bileretan
Beti euskaraz	%3	%27	%4	%3	%4
Euskaraz gehiago	%7	%2	%11	%4	%4
Bietan berdin	%27	%5	%30	%10	%6
Gaztelaniaz gehiago	%24	%4	%22	%12	%8
Euskaraz inoiz ez	%39	%61	%33	%71	%78

Euskaren erabilera ahozko barne-komunikazioan asko aldatzen da enpresa-kolektibo batzuetatik beste batzuetara, eta, oro har, mantendu egiten dira euskararen erabilera orokorra aztertzean deskribatutako joerak.

- Sektoreen arabera, erabilera batez bestekoa baino askoz ere handiagoa da irakaskuntza eta osasunaren sektoreko enpresetan (6,3 irakaskuntzakoetan eta 2,5 osasunekoetan) eta askoz ere txikiagoa garraio eta komunikaziokoetan (1,9), enpresa-zerbitzukoetan (1,8) eta eraikuntzakoetan (1,6).
- Ia ez dago alderik euskararen erabileran enpresen tamainaren arabera.
- Alderik handienak hautematen dira lurraldeen arabera –Gipuzkoa (4,6), Bizkaia (2,3) eta Araba (1,2)– eta gune soziolinguistikoen arabera –1. gunea (6,8), 2. gunea (4,0), 3. gunea (2,9) eta 4. gunea (1,3)–.
- Ia ez dago alderik produktu edo zerbitzuen amaierako hartzailearen arabera eta merkatu geografikoaren arabera; bai, ordea, kapitalaren jatorriaren arabera, zertxobait handiagoa baita euskal kapitala duten enpresetan (3,2) kanpoko kapitala dutenetan baino (2,5).

Ahozko barne-komunikazioan aintzat hartutako esparru edo jardueri dagokienez, errepikatu egiten dira deskribatutako joerak, bozgorailu bidezko mezuetako erabileraren salbuespenarekin. Izan ere, batez bestekoarekiko igoera nabarmena gertatzen da banku eta aseguruaren sektoreko enpresetan (5,0), garraio eta komunikaziokoetan (4,1), 500 langile baino gehiagokoetan (5,4), eta euskal kapitala dutenetan (4,4).

EUSKARAREN ERABILERA AHOZKO BARNE-KOMUNIKAZIOAN (0tik 10era)


<i>Batez bestekoak</i>	<i>AHOZKO BARNEKOA</i>	<i>Bozgorailuz</i>	<i>Langileek beren artean</i>	<i>Taldeko bileretan</i>	<i>Zuzendari. bileretan</i>
<i>Jarduera-sektorea:</i>					
Irakaskuntza - Osasuna	4,4	5,6	4,8	3,4	2,9
Irakaskuntza	6,3	8,8	6,6	5,6	4,6
Osasuna	2,5	2,5	2,9	1,1	1,2
Industria	3,1	3,2	3,6	1,6	1,2
Bankuak - Aseguruak	2,9	5,0	3,1	1,6	1,0
Merkataritza - Ostalaritza	2,8	3,2	3,4	1,1	1,0
Bestelako zerbitzuak	2,5	3,3	2,7	0,9	0,7
Garraioak - Komunikazioak	1,9	4,1	2,1	0,6	0,4
Enpresa-zerbitzuak	1,8	2,5	2,2	1,0	0,8
Eraikuntza	1,6	1,4	1,9	0,3	0,3
<i>Langile-kopurua:</i>					
100etik 250era	2,8	2,7	3,2	1,4	1,2
251tik 500era	3,1	3,0	3,6	1,7	1,3
500 baino gehiago	2,8	5,4	3,2	1,5	1,0
<i>Herrialdea:</i>					
Gipuzkoa	4,6	5,4	5,0	2,8	2,5
Bizkaia	2,3	2,5	2,8	1,0	0,5
Araba	1,2	0,3	1,4	0,3	0,6
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>					
1. gunea	6,8	7,6	7,1	5,4	3,5
2. gunea	4,0	4,8	4,6	2,0	1,5
3. gunea	2,9	3,9	3,4	1,5	1,3
4. gunea	1,3	0,9	1,6	0,5	0,5
<i>Produktu/zerbitzuaren hartzaila:</i>					
Kontsumitzailea	3,1	3,5	3,5	1,8	1,4
Beste enpresa bat	2,8	3,2	3,2	1,3	1,1
<i>Non saltzen da?</i>					
Euskal Herrian	2,8	3,3	3,2	1,8	1,4
Kanpoan	2,7	2,8	3,1	1,2	1,0
<i>Kapitalaren jatorria:</i>					
Bertakoa	3,2	4,4	3,5	1,9	1,5
Kanpokoak	2,5	2,0	3,0	1,2	0,9

EUSKARAREN ERABILERA AHOZKO KANPO-KOMUNIKAZIOAN.

Euskararen erabilera ahozko kanpo-komunikazioan, 3,2 puntu, zertxobait handiagoa da enpresaren jardueretako erabilera orokorra baino, 2,9 puntu. Nolanahi ere, atalaren hasieran aditzera eman den moduan, alderdi horri buruzko informazioa biltzean sortu diren arazoak direla-eta, ahozko kanpo-komunikazioaren erabilera segur aski gainestimatuta dago, euskara erabili ohi duten enpresa batzuen kasuan batik bat.


Euskaren erabilera aldatu egingo da aintzat hartutako kanpoko jardueren arabera:

- Publizitatean eta bezeroaren zuzeneko arretan zertxobait handiagoa da, 3,6 puntu eta 3,4 puntu hurrenez hurren.
- Eta zertxobait txikiagoa hornitzaileekiko harremanetan, 2,8 puntu.



Batez besteko puntuazioek islatzen dute enpresen %43k ez dutela inoiz edo ia inoiz erabiltzen euskara ahozko kanpo-komunikazioan, eta %19k gaztelania baino gehiago erabiltzen dutela. Jardueren arabera:

- Enpresen %57k ez dute euskara inoiz erabiltzen publizitatean, eta %32k gaztelania baino gehiago erabiltzen dute.
- %43k ez dute inoiz erabiltzen bezeroekin, eta %21ek gaztelania baino gehiago erabiltzen dute.
- %54k ez dute inoiz hornitzaileekin erabiltzen eta %18k gaztelania baino gehiago erabiltzen dute.



EUSKARAREN ERABILERA AHOZKO KANPO-KOMUNIKAZIOAN

% Bertikalak	AHOZKO KANPOKOA	Publizitatea	Bezeroak	Hornitzaileak
Beti euskaraz	%10	%31	%13	%11
Euskaraz gehiago	%9	%1	%8	%7
Bietan berdin	%21	%7	%23	%17
Gaztelaniaz gehiago	%17	%4	%13	%11
Euskaraz inoiz ez	%43	%57	%43	%54

Euskararen erabilera ahozko kanpo-komunikazioan oso ezberdina da enpresa-kolektibo batzuetatik beste batzuetara, eta, oro har, orain arte erabilerak aztertzean deskribatutako joerak mantentzen dira.

- Batez bestekoa baino askoz ere handiagoa da irakaskuntza eta osasunaren sektoreko enpresetan (6,0) –7,6 irakaskuntzakoetan eta 4,4 osasunekoetan–, banku eta aseguruaren sektorekoetan (4,5), bestelako zerbitzukoetan (4,5), eta merkataritza eta ostalaritzakoetan (4,2). Aitzitik, askoz ere txikiagoa da eraikuntzakoetan (2,0).
- Zertxobait gehitzen da enpresen tamainarekin, 3,0 100 eta 250 langile arteko enpresetan, 3,4 251 eta 500 langile artekoetan eta 3,8 500 langiletik gorakoetan.
- Alderik handienak agertzen dira lurraldeen arabera –Gipuzkoa (4,4), Bizkaia (3,0) eta Araba (1,0)– eta gune soziolinguistikoen arabera –1. gunean (5,1), 2.ean (4,1), 3.ean (3,6) eta 4.ean (2,1)–.
- Handia da Euskal Herrian saltzen duten enpresetan (4,4), batez ere amaierako kontsumitzaileari saltzen diotenetan (4,1) eta euskal kapitala dutenetan (4,0). Eta txikiagoa da kanpoan saltzen duten enpresetan (2,4), beste enpresa batzuei saltzen diotenetan (2,6) eta kanpoko kapitala dutenetan (2,6).

Jarduerei dagokienez, errepikatu egiten dira deskribatutako joerak, baina publizitatearen kasuan zenbait berezitasun antzematen da. Izatez, erabilera oso handia da irakaskuntza eta osasunaren sektoreko enpresetan (7,7), banku eta aseguruakoetan (7,1), bestelako zerbitzukoetan (6,9), merkataritza eta ostalaritzakoetan (5,4) eta garraio eta komunikaziokoetan (5,4), 500 langile baino gehiagokoetan (5,7), Euskal Herrian saltzen dutenetan (5,6), eta amaierako kontsumitzaileari saltzen diutenetan (5,2). Aitzitik, batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa da industria-enpresetan (2,6) eta eraikuntzakoetan (1,8), 200 eta 250 langile artekoetan (2,9) 1. gune soziolinguistikoetan (2,8), Euskal Herriaz kanpo saltzen dutenetan (2,0) eta beste enpresa batzuei saltzen diutenetan (2,5).

EUSKARAREN ERABILERA AHOZKO KANPO-KOMUNIKAZIOAN (0tik 10era)


<i>Batez bestekoak</i>	<i>AHOZKO KANPOKOA</i>	<i>Publizitatea</i>	<i>Bezeroak</i>	<i>Horni- tzaileak</i>
<i>Jarduera-sektorea:</i>				
Irakaskuntza - Osasuna	6,0	7,7	6,3	4,6
Irakaskuntza	7,6	9,9	8,1	5,6
Osasuna	4,4	4,9	4,5	3,3
Bestelako zerbitzuak	4,5	6,9	4,7	3,8
Bankuak - Aseguruak	4,5	7,1	4,8	2,6
Merkataritza - Ostalaritza	4,2	5,4	4,7	3,0
Garraioak - Komunikazioak	3,2	5,4	3,6	2,4
Industria	2,8	2,6	2,9	2,7
Enpresa-zerbitzuak	2,6	3,6	2,8	2,1
Eraikuntza	2,0	1,8	2,0	2,0
<i>Langile-kopurua:</i>				
100etik 250era	3,0	2,9	3,2	2,7
251tik 500era	3,4	4,2	3,6	2,8
500 baino gehiago	3,8	5,7	4,2	3,0
<i>Herrialdea:</i>				
Gipuzkoa	4,4	5,0	4,5	3,9
Bizkaia	3,0	3,3	3,3	2,6
Araba	1,0	1,7	1,2	0,7
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>				
1. gunea	5,1	2,8	5,0	5,4
2. gunea	4,1	4,2	4,2	3,8
3. gunea	3,6	4,5	3,8	2,7
4. gunea	2,1	3,0	2,3	1,5
<i>Produktu/zerbitzuaren hartzailea:</i>				
Kontsumitzailea	4,1	5,2	4,2	3,2
Beste enpresa bat	2,6	2,5	2,8	2,5
<i>Non saltzen da?</i>				
Euskal Herrian	4,4	5,6	4,7	3,5
Kanpoan	2,4	2,0	2,5	2,3
<i>Kapitalaren jatorria:</i>				
Bertakoa	4,0	4,4	4,1	3,4
Kanpokoak	2,6	2,4	3,0	2,4

EUSKARAREN ERABILERA IDATZIZKO BARNE-KOMUNIKAZIOAN.

Adierazi den moduan, idatzizko komunikazioaren erabilera ebaluatzean ez da baztertzailatzat jo euskararen eta gaztelaniaren erabilera, hau da, komunikazioa elebiduna izan daiteke; euskararekin batera gaztelania erabil daiteke.


Euskararen erabilera idatzizko barne-komunikazioan 3,2 puntukoa da, enpresako erabilera orokorra baino handixeagoa, 2,9 puntukoa baita. Dena den, nabarmen aldatzen da aintzat hartutako esparru edo jardueren arabera:

- Askoz ere handiagoa da barne-errotulazioan, 4,5 puntu.
- Zertxobait txikiagoa nominetan eta lan-kontratuetan, 2,9 puntu, eta barneko idazki eta agirietan, 3,0 puntu.
- Eta askoz ere txikiagoa programa informatiko eta datu-baseetan, 1,0 puntu.



Ehunekoetan, enpresen %46k ez dute inoiz edo ia inoiz erabiltzen euskara idatzizko barne-komunikazioan, eta %22k kasuen erdietan baino gehiagotan erabiltzen dute (euskara soilik edo gaztelaniarekin batera). Jardueren arabera:

- Enpresen %47k ez dute euskara inoiz erabiltzen barne-errotulazioan eta %42k ia beti erabiltzen dute.
- %65ek ez dute nominetan eta lan-kontratuetan erabiltzen eta %27k ia beti.
- %63k ez dute inoiz erabiltzen barneko idazki eta agirietan eta %26k ia beti.
- %86k ez dute inoiz erabiltzen programa informatikoetan eta %9k ia beti.



EUSKARAREN ERABILERA IDATZIZKO BARNE-KOMUNIKAZIOAN

% Bertikalak	IDATZIZKO BARNEKOA	Errotulazioa	Nominak, kontratuak	Idatzkiak, agiriak	Programa informatikoak
Beti euskaraz	%14	%39	%25	%24	%8
Erdietan baino gehiagotan	%8	%3	%2	%2	%1
Erdietan	%14	%6	%6	%6	%4
Erdietan baino gutxiagotan	%17	%5	%2	%4	%2
Inoiz ez euskaraz	%46	%47	%65	%63	%86

Euskararen erabilera idatzizko barne-komunikazioan ere nabarmen aldatzen da enpresa-kolektibo batzuetatik beste batzuetara, eta mantendu egiten dira, oro har, erabilerak aztertzean deskribatutako joerak.

- Batez bestekoa baino askoz ere handiagoa da irakaskuntza eta osasunaren sektoreko enpresetan (6,8) (8,3 irakaskuntzakoetan eta 5,3 osasunekoetan), banku eta aseguruetoetan (4,5), garraio eta komunikaziokoetan (4,3) eta bestelako zerbitzukoetan (3,9). Eraikuntzakoetan, aldiz, ia ez da erabiltzen (0,9).
- Gehitu egiten da enpresen tamainarekin, 2,7 100 eta 250 langile artekoetan, 3,8 251 eta 500 langile artekoetan eta 4,3 500 langile baino gehiagokoetan.
- Alderik handienak lurraldeen arabera dira –Gipuzkoa (4,8), Bizkaia (2,5) eta Araba (2,1)–, bai eta gune soziolinguistikoen arabera ere –1. gunean (5,3), 2. gunean (3,8), 3. gunean (3,3) eta 4. gunean (2,3)–.
- Handia da Euskal Herrian saltzen duten enpresetan (4,3), amaierako kontsumitzaileari saltzen diotenetan (3,8) eta euskal kapitala dutenetan (3,8). Eta nabarmen txikiagoa kanpoan saltzen duten enpresetan (2,5), beste enpresa batzuei saltzen diotenetan (2,8) eta kanpoko kapitala dutenetan (2,2).

Esparru edo jardueri dagokienez ere errepikatu egiten da deskribatutako joera. Haatik, nabarmendu behar da euskararen erabilera oso txikia dela Bizkaiko enpresetako nomina eta lan-kontratuetan (1,9); Arabakoetan baino txikiagoa da (2,2).


EUSKARAREN ERABILERA IDATZIZKO BARNE-KOMUNIKAZIOAN (0tik 10era)

<i>Batez bestekoak</i>	<i>IDATZIZKO BARNEKOA</i>	<i>Errotulazioa</i>	<i>Nominak, kontratuak</i>	<i>Idatziak, Agiriak</i>	<i>Programa informatikoak</i>
<i>Jarduera-sektorea:</i>					
Irakaskuntza - Osasuna	6,8	8,3	6,2	6,6	2,5
Irakaskuntza	8,3	9,5	7,3	8,4	3,8
Osasuna	5,3	7,1	5,0	4,8	1,2
Bankuak - Aseguruak	4,5	6,4	3,8	4,7	2,6
Garraioak - Komunikazioak	4,3	5,9	3,0	4,6	1,3
Bestelako zerbitzuak	3,9	5,7	3,5	3,6	1,9
Merkataritza - Ostalaritza	2,9	5,7	2,4	2,6	0,7
Industria	2,9	4,0	2,8	2,7	0,9
Enpresa-zerbitzuak	2,6	4,3	2,4	2,1	0,9
Eraikuntza	0,9	1,3	0,8	0,8	0,0
<i>Langile-kopurua:</i>					
100etik 250era	2,7	3,9	2,5	2,5	0,7
251tik 500era	3,8	5,4	3,6	3,4	1,6
500 baino gehiago	4,3	6,0	3,7	4,4	2,0
<i>Herrialdea:</i>					
Gipuzkoa	4,8	5,8	4,9	4,5	1,9
Bizkaia	2,5	4,0	1,9	2,4	0,7
Araba	2,1	3,5	2,2	1,5	0,4
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>					
1. gunea	5,3	7,2	4,3	5,4	1,8
2. gunea	3,8	5,1	3,8	3,5	1,4
3. gunea	3,3	4,8	3,0	3,2	0,8
4. gunea	2,3	3,5	2,0	2,1	0,8
<i>Produktu/zerbitzuaren hartzailea:</i>					
Kontsumitzailea	3,8	5,6	3,4	3,7	1,3
Beste enpresa bat	2,8	3,9	2,6	2,6	0,8
<i>Non saltzen da?</i>					
Euskal Herrian	4,3	6,1	3,7	3,9	1,8
Kanpoan	2,5	3,9	2,4	2,2	0,7
<i>Kapitalaren jatorria:</i>					
Bertakoa	3,8	5,1	3,5	3,8	1,4
Kanpokoak	2,2	3,7	2,0	1,9	0,6

EUSKARAREN ERABILERA IDATZIZKO KANPO-KOMUNIKAZIOAN.


Idatzizko kanpo-komunikazioan gertatzen den erabilera eta enpresetako erabilera orokorra berdina da, eta ez da ia aldatzen aintzat hartutako esparru eta jardueretan:

- 3,1 puntu enpresaren irudian eta kanpo-errotulazioan.
- 3,1 liburuxka eta katalogoetan.
- 2,8 web orrian.
- 2,6 bezeroekiko idatzizko komunikazioan.



Ehunekoetan, enpresen %56k ez dute euskara inoiz edo ia inoiz erabiltzen idatzizko kanpo-komunikazioan eta %23k kasuen erdietan baino gehiagotan erabiltzen dute (euskara soilik edo gaztelaniarekin batera). Jardueren arabera:

- Enpresen %65ek ez dute euskara inoiz erabiltzen enpresaren irudian eta kanpo-errotulazioan, eta %28k ia beti erabiltzen dute.
- %63k ez dute inoiz erabiltzen liburuxka eta katalogoetan, eta %27k ia beti.
- %69k ez dute erabiltzen inoiz web orrian, eta %25ek beti.
- %68k ez dute inoiz erabiltzen bezeroekiko idatzizko komunikazioan, eta %22k beti.



EUSKARAREN ERABILERA IDATZIZKO KANPO-KOMUNIKAZIOAN

% Bertikalak	IDATZIZKO KANPOKOA	Enp. irudia, errotulazioa	Liburuxkak, katalogoak	Web orria	Bezereekin
Beti euskaraz	%18	%26	%26	%25	%22
Erdietan baino gehiagotan	%5	%2	%1	%0	%0
Erdietan	%9	%5	%6	%4	%6
Erdietan baino gutxiagotan	%11	%3	%3	%2	%5
Inoiz ez euskaraz	%56	%65	%63	%69	%68

Kolektiboen arabera, euskararen erabilera gertatzen diren aldaketak handiak dira eta mantendu egiten dira, oro har, erabilerak aztertzean deskribatutako joerak.

- Zerbitzu-sektoreko enpresetan batez bestekoa baino askoz handiagoa da: irakaskuntza eta osasunaren sektorean (7,4) (9,5 irakaskuntzakoetan eta 5,3 osasunekoetan), banku eta aseguruetoetan (6,7), bestelako zerbitzukoetan (5,5), garraio eta komunikazioetan (5,3) eta merkataritza eta ostalaritzakoetan (4,6). Batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa da, ordea, industria-sektoreko enpresetan (1,7) eta eraikuntzakoetan (0,6).
- Nabarmen gehitzen da enpresen tamainarekin, 2,3 100 eta 250 langile arteko enpresetan, 3,5 251 eta 500 langile artekoetan, eta 4,9 500 langile baino gehiagokoetan.
- Alde handiak daude lurraldearen arabera –Gipuzkoa (4,3), Bizkaia (2,5) eta Araba (1,5)—, baina ez horrenbeste gune linguistikoen arabera, gehien erabiltzen duten enpresak 3. guneak dira (3,9) eta gutxien erabiltzen dutenak 1. guneak (2,3) eta 4. guneak (5,1) dira.
- Handia da Euskal Herrian saltzen duten enpresetan (5,2), amaierako kontsumitzaileari saltzen diotenetan (4,6), eta euskal kapitala dutenetan (4,1).

Eta nabarmen txikiagoa kanpoan saltzen duten enpresetan (1,2), beste enpresei saltzen dietenetan (1,9) eta kanpoko kapitala dutenetan (1,3).

Nabarmendu behar da idatzizko kanpo-erabilera gune soziolinguistikoak oso eragin txikia duela; izatez, gune euskaldunetan dauden enpresa gehienak industria-sektorekoak dira eta Euskal Herritik kanpo saltzen dute.

Esparru edo jardueri dagokienez, errepikatu egiten dira deskribatutako joerak, bezeroekiko harremanetan banku eta aseguru sektoreko enpresak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (7,1), irakaskuntza eta osasunaren sektoreko enpresen aurretik.

EUSKARAREN ERABILERA IDATZIZKO KANPO-KOMUNIKAZIOAN (0tik 10era)

<i>Batez bestekoak</i>	<i>IDATZIZKO KANPOKOA</i>	<i>Enp. irudia, errotulazioa</i>	<i>Liburuxkak, katalogoak</i>	<i>Web orria</i>	<i>Bezeroekin</i>
<i>Jarduera-sektorea:</i>					
Irakaskuntza - Osasuna	7,4	8,1	7,9	9,0	7,0
Irakaskuntza	9,5	10,0	9,4	10,0	9,0
Osasuna	5,3	6,0	5,7	6,8	4,9
Bankuak - Aseguruak	6,7	6,7	6,7	5,7	7,1
Bestelako zerbitzuak	5,5	6,0	6,4	5,5	4,4
Garraioak - Komunikazioak	5,3	5,5	5,8	5,9	4,3
Merkataritza - Ostalaritza	4,6	4,1	5,4	3,5	4,3
Enpresa-zerbitzuak	3,2	3,2	3,4	3,2	2,9
Industria	1,7	1,9	1,8	1,5	1,4
Eraikuntza	0,6	0,1	0,6	0,7	1,0
<i>Langile-kopurua:</i>					
100etik 250era	2,3	2,4	2,3	2,2	2,0
251tik 500era	3,5	3,4	3,9	2,9	3,2
500 baino gehiago	4,9	5,3	5,3	5,1	4,4
<i>Herrialdea:</i>					
Gipuzkoa	4,3	4,4	4,5	3,3	4,0
Bizkaia	2,5	2,7	2,8	2,6	2,1
Araba	1,5	1,6	1,4	1,9	1,3
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>					
1. gunea	2,3	3,0	3,0	1,9	2,1
2. gunea	3,2	3,4	3,4	2,7	2,7
3. gunea	3,9	4,0	3,9	3,5	3,7
4. gunea	2,3	2,4	2,6	2,6	2,1
<i>Produktu/zerbitzuaren hartzailea:</i>					
Kontsumitzailea	4,6	4,7	4,9	4,2	4,3
Beste enpresa bat	1,9	2,0	2,1	1,9	1,5
<i>Non saltzen da?</i>					
Euskal Herrian	5,2	5,2	5,7	5,5	4,8
Kanpoan	1,2	1,6	1,2	1,1	1,0
<i>Kapitalaren jatorria:</i>					
Bertakoa	4,1	4,4	4,4	4,3	3,4
Kanpokoak	1,3	1,2	1,5	0,5	1,4

EUSKARAREN ERABILERA PRESTAKUNTZAKO BARNE- IKASTAROETAN.

Komunikatzeko moduetako euskararen erabilerari buruzko atalari amaiera emateko, prestakuntzako barne-ikastaroetako euskararen erabilerari buruz galdetu zitzaien elkarrizketatutako pertsonei.

Euskararen erabilera prestakuntzako barne-ikastaroetan oso txikia da, 0 eta 10 arteko eskalan 1,0 puntukoa. Izatez, enpresen %83k ez dute inoiz erabiltzen, %4k ikastaroen erdietan baino gutxiagotan erabiltzen dute, %7k ikastaroen erdietan eta %6k ikastaroen erdietan baino gehiagotan.

Irakaskuntzako enpresak dira prestakuntzako barne-ikastaroetan euskara gehien erabiltzen dutenak: %35ek ia ikastaro guztiak euskaraz egiten dituzte, %18k ikastaroen erdiak egiten dituzte, eta %12k erdiak baino gutxiago.

Gainerako sektoreetan ondokoa nabarmendu behar da:

- Industria-enpresetan, %7k ikastaroen erdiak baino gehiago egiten dituzte euskaraz eta %8k erdiak.
- Banku eta aseguruetakoko enpresetan, %13k ikastaroen erdiak baino gehiago egiten dituzte euskaraz.


4.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO NEURRIAK.

EAEko enpresa handien %18k euskararen erabilera normalizatzeko plan integrala dute. Gainera, %13k alderdi jakin batzuetan euskara erabiltzeko irizpideak dituzte, batez ere errotulazioan eta, neurri txikiagoan, barneko komunikazio, idazki eta agirietan, bezeroen arretan eta katalogoetan.

Horrenbestez, elkarrizketatutako pertsonen aditzera emandakoaren arabera, enpresen herenek, %31k, euskararen erabilerari buruzko planak edo irizpideak dituzte.

Euskararen erabileraren plan integrala edukitzea ez da ezinbesteko baldintza, ez eta nahikoa ere, batik bat euskara erabiltzeko. Haatik, badago lotura planen eta erabileraren artean. Eduki badute plana euskara ia inoiz erabiltzen ez duten enpresen %1ek, gaztelania gehiago erabiltzen dutenen %10ek, bi hizkuntzak berdin erabiltzen dituztenen %36k, euskara gehiago erabiltzen dutenen %59k eta euskara beti erabiltzen dutenen %55ek.

Bestalde, irizpideek ez dute erabilerarekin loturarik ikuspuntu kuantitatibotik; bai, ordea, ikuspuntu kualitatibotik. Euskara gutxi erabiltzen duten enpresek errotulazioan erabiltzen dute batik bat euskara, eta gehien bat euskara erabiltzen duten enpresek agiri, idazki eta abarretan erabiltzen dute batik bat euskara.



NORMALIZAZIORAKO NEURRIAK EUSKARAREN ERABILERAREN ARABERA

<i>% Bertikalak</i>	<i>GUZTIRA</i>	<i>Inoiz ez</i>	<i>Gaztelaniaz gehiago</i>	<i>Bietan berdin</i>	<i>Euskaraz gehiago</i>	<i>Beti</i>
Plan integrala	%18	%1	%10	%36	%59	%55
Erabilera-irizpideak	%13	%7	%15	%19	%7	%18
Ez bata, ez bestea	%69	%92	%74	%45	%33	%27

Euskararen erabilerari buruzko plan integrala edo irizpide zehatzak izan edo ez, enpresen %36an euskara-ikastaroak ematen dira edota, neurri batean edo bestean, diruz laguntzen dira. Bestetik, enpresen %20k kanpoko enpresetara jotzen dute euskararako itzulpenak egiteko.

Zerbitzu-enpresek dituzte, batez ere, euskararen erabilera normalizatzeko planak edo irizpideak.

Planei dagokienez, irakaskuntza eta osasunaren sektoreko enpresen %54k dituzte planak (irakaskuntzako %68k eta osasun-sektorekoen %39k), banku eta aseguru sektorekoen %33k, garraio eta komunikazioko %29k, eta bestelako zerbitzuko %27k.

Irizpide zehatzei dagokienez, bestelako zerbitzuko enpresen %27k finkatu dituzte irizpideak, garraio eta komunikaziokoetako %24k, eta merkataritza eta ostalaritza %22k.

Horrez gain, normalizaziorako planak edukitzea oso lotuta dago enpresen tamainarekin. 500 langile baino gehiagoko enpresen %41ek dituzte, 251 eta 500 langile artekoen %21ek, eta 100 eta 250 langile artekoen %12k soilik.

EUSKARAREN ERABILERARAKO PLANA EDO IRIZPIDEAK

<i>% Horizontalak</i>	<i>Plan integrala</i>	<i>Erabilera- irizpideak</i>
<i>Jarduera-sektorea:</i>		
Irakaskuntza - Osasuna	%54	%14
Irakaskuntza	%68	%16
Osasuna	%39	%11
Bankuak - Aseguruak	%33	%13
Garraioak - Komunikazioak	%29	%24
Bestelako zerbitzuak	%27	%27
Merkataritza - Ostalaritza	%16	%22
Industria	%14	%11
Enpresa-zerbitzuak	%13	%13
Eraikuntza	%0	%4
<i>Langile-kopurua:</i>		
100etik 250era	%12	%12
251tik 500era	%21	%16
500 baino gehiago	%41	%11

Lurraldeen arabera, Gipuzkoako enpresen %30ek dute normalizaziorako plana, Bizkaiko enpresen %12k soilik eta Arabako enpresen %14k. Gune soziolinguistikoen arabera, berriz, espero zitekeena baino txikiagoak dira aldeak; 1. guneko enpresen %18k dute plana, 2. guneko %27k, 3. guneko %19k, eta 4. guneko %11k.

EUSKARAREN ERABILERARAKO PLANA EDO IRIZPIDEAK

<i>% Horizontalak</i>	<i>Plan integrala</i>	<i>Erabilera-irizpideak</i>
<i>Herrialdea:</i>		
Gipuzkoa	%30	%9
Bizkaia	%12	%13
Araba	%14	%19
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>		
1. gunea	%18	%18
2. gunea	%27	%11
3. gunea	%19	%16
4. gunea	%11	%12

Azkenik, alde handiak daude produktu edo zerbitzuen azken hartzailearen arabera, merkatu geografikoaren arabera eta kapitalaren jatorriaren arabera. Alderik handiena merkatu geografikoaren arabera da. Izan ere, Euskal Herrian batez ere saltzen duten enpresen artean %25ek normalizaziorako plana dute eta %21ek irizpide zehatzak dituzte; eta kanpoan batez ere saltzen duten enpresen %13k plana dute eta beste %13k irizpideak dituzte.

EUSKARAREN ERABILERARAKO PLANA EDO IRIZPIDEAK


<i>% Horizontalak</i>	<i>Plan integrala</i>	<i>Erabilera-irizpideak</i>
<i>Produktu/zerbitzuaren hartzailea:</i>		
Kontsumitzailea	%20	%15
Beste enpresa bat	%16	%11
<i>Non saltzen da?</i>		
Euskal Herrian	%25	%21
Kanpoan	%13	%13
<i>Kapitalaren jatorria:</i>		
Bertakoa	%23	%13
Kanpokoak	%8	%18

EUSKARAREN BALORAZIOA LANGILEEN AUKERAKETAN.

Enpresen erdiek, %49k, ez dute kontuan hartzen euskara jakitea langileak aukeratzeko garaian. Enpresen laurdenek, %27k, meritu gisa hartzen dute kontuan (%10ek lanpostu batzuetan eta %17k guztietan). Gainerako laurdenak, %25ek, baldintzatzat hartzen du (%21ek lanpostu batzuetan eta %4k guztietan).

Euskara jakiteari ematen zaion garrantzia ez dator bat beste hizkuntzak jakiteari ematen zaion garrantziarekin. Enpresen bostenek soilik, %21ek, ez dute baloratzen beste hizkuntza batzuk jakitea. Enpresen bostenek, %19k, meritu gisa baloratzen dute, eta gainerako beste hiru bostenek, %60k, baldintzatzat jotzen dute (%58k lanpostu batzuetan eta %2k guztietan).

Beste hizkuntza batzuk jakitea baloratzen duten enpresa ia guztietan, ingelesa da gehien eskatzen den hizkuntza. Askoz ere proportzio txikiagoan baloratzen da frantsesa, alemana eta beste hizkuntza batzuk jakitea.



EUSKARA ETA BESTE HIZKUNTZEN BALORAZIOA

% Bertikalak	<i>Euskara</i>	<i>Beste hizkuntzak</i>
Baldintza, lanpostu guztietan	%4	%2
Baldintza, zenbait lanpostutan	%21	%58
Meritu, lanpostu guztietan	%17	%8
Meritu, zenbait lanpostutan	%10	%11
Ez	%49	%21

Zerbitzu-enpresek baloratzen dute gehien langileak aukeratzean euskara jakitea. Hala, bere lanpostuetako batzuetan (edo guztietan) baldintza dute euskara jakitea irakaskuntza eta osasunaren sektoreko enpresen %68k (irakaskuntzakoetan %95ek eta osasunaren sektorean %39k), banku eta aseguruetoako %46k, merkataritza eta ostalaritzako %35ek eta bestelako zerbitzuetako %33k. Lanpostu guztietan baldintzat hartzen dute irakaskuntzako enpresen %42k eta banku eta aseguruetoako enpresen %13k.

Euskara jakitearen balorazioa oso lotuta dago enpresen tamainarekin; beren lanpostuetako guztietan (edo batzuetan) baldintza dute 500 langile baino gehiagoko enpresen %47k, 251 eta 500 langile artekoen %29k eta 100 eta 250 langile artekoen %18k.

EUSKARAREN BALORAZIOA LANGILEEN AUKERAKETAN

<i>% Horizontalak</i>	<i>Baldintza</i>	<i>Meritu</i>	<i>Ez</i>
<i>Jarduera-sektorea:</i>			
Irakaskuntza - Osasuna	%68	%16	%16
Irakaskuntza	%95	%5	%0
Osasuna	%39	%28	%33
Bankuak - Aseguruak	%46	%40	%13
Merkataritza - Ostalaritza	%35	%38	%28
Bestelako zerbitzuak	%33	%20	%47
Garraioak - Komunikazioak	%24	%36	%41
Enpresa-zerbitzuak	%20	%35	%45
Industria	%18	%25	%57
Eraikuntza	%12	%16	%73
<i>Langile-kopurua:</i>			
100etik 250era	%18	%24	%58
251tik 500era	%29	%36	%35
500 baino gehiago	%47	%26	%28

Lurraldeen arabera, beren lanpostuetako guztietan (edo batzuetan) baldintzat jotzen dute Gipuzkoako enpresen %33k, Bizkaiko enpresen %22k eta Arabako enpresen %11k.

Gune soziolinguistikoaren arabera, 1. gunearen %39k, 2. gunearen %29k, 3. gunearen %28k eta 4. gunearen %17k.

EUSKARAREN BALORAZIOA LANGILEEN AUKERAKETAN

<i>% Horizontalak</i>	<i>Baldintza</i>	<i>Meritu</i>	<i>Ez</i>
<i>Herrialdea:</i>			
Gipuzkoa	%33	%32	%34
Bizkaia	%22	%24	%53
Araba	%11	%22	%66

EUSKARAREN BALORAZIOA LANGILEEN AUKERAKETAN

<i>% Horizontalak</i>	<i>Baldintza</i>	<i>Meritu</i>	<i>Ez</i>
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>			
1. gunea	%39	%21	%39
2. gunea	%29	%29	%41
3. gunea	%28	%29	%44
4. gunea	%17	%24	%59

Halaber, aldeak garrantzitsuak dira produktu edo zerbitzuen hartzaileen arabera, merkatu geografikoaren arabera eta kapitalaren jatorriaren arabera. Alderik handienak merkatu geografikoaren arabera gertatzen dira; izan ere, beren lanpostuetako guztietan (edo batzuetan) baldintzatzen jotzen dute Euskal Herrian saltzen duten enpresen %41ek eta kanpoan saltzen dutenen %16k.

EUSKARAREN BALORAZIOA LANGILEEN AUKERAKETAN


<i>% Horizontalak</i>	<i>Baldintza</i>	<i>Meritu</i>	<i>Ez</i>
<i>Produktu/zerbitzuaren hartzailea:</i>			
Kontsumitzailea	%35	%27	%38
Beste enpresa bat	%19	%25	%56
<i>Non saltzen da?</i>			
Euskal Herrian	%41	%27	%32
Kanpoan	%16	%19	%65
<i>Kapitalaren jatorria:</i>			
Bertakoa	%37	%24	%40
Kanpokoak	%16	%25	%59

Langileak aukeratzeko garaian ondoko lanpostuetan jotzen da baldintzatzen euskara jakitea :

- Eskatzen duten enpresen erdietan, %59an, jendearekin edo bezeroekin zuzenean erlazionatuta dauden lanpostuetan: telefonistak, jendaurreko lanpostuak, jendearen arretarakoak...
- %22an administrazioko lanpostuetan.
- %18an saltzaile-lanpostuetan.
- %22an teknikari-lanpostuetan, batik bat irakasle-lanpostuetan –irakaskuntzan– eta giza baliabideetako lanpostuetan –industrian–.
- %9an zuzendaritzako langileen edo sailburuen lanpostuetan.
- %10ean gainerako lanpostuetan edo lanpostu guztietan.

Beste lanpostu batzuetan beste hizkuntza batzuk jakitea eskatzen da, eta lanpostu horien banaketa ez dator bat aurreko banaketarekin:

- Enpresen erdietan baino gehiagotan, %58an, saltzaile-lanpostuetan eskatzen da eta %19an esportazio eta kanpo-harremanetarako saileko lanpostuetan.
- %35ean teknikari-lanpostuan eta %16an proiektu-buru edo aholkularien lanpostuetan.
- %17an zuzendaritzako lanpostuetan.
- %9an administrari-lanpostuetan.
- Eta %6an jendaurreko edo jendearen arretarako lanpostuetan.



Eta euskara meritu gisa baloratzen den lanpostuei dagokienez:


- Enpresen %34an jendearekin edo bezeroekin zuzenean lotzen diren lanpostuetan baloratzen da meritu gisa.
- %21ean administrari-lanpostuetan.
- %14an saltzaile-lanpostuetan.
- %12an zuzeneko esku-laneko lanpostuetan.
- %7an teknikari-lanpostuetan.
- %6an zuzendaritzako langileen edo sailburuen lanpostuetan.
- %25ean euskara jakitea baldintza ez duten lanpostu guztietan (enpresa batzuetako lanpostu batzuetan euskara jakitea baldintza da eta beste lanpostu batzuetan meritua da).

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO EPE LABURREAN HARTUKO DIREN NEURRIEN AURREIKUSPENA.

Elkarrizketatutako enpresen %26k epe laburrean euskararen erabilera normalizatzeko neurriak hartzea aurreikusten dute; alabaina, horietako gehienek, %18k, normalizaziorako plana landuta dute eta beren planean aurreikusten diren neurriak aplikatzen jarraituko dute. Horrenbestez, enpresen %8 dira normalizazioerako neurriak hartzea aurreikusten duten eta gaur egun aplikatzen ez dituzten enpresak.

Hartu beharreko neurrien artean ondokoak adierazi dira:

- Prestakuntzarako ikastaroak eta planak.
- Euskaldunen artean euskararen erabilera sustatzea.
- Elebitasuna ezartzea.
- Langile euskaldunak kontratatzea.
- Lanpostu bakoitzeko hizkuntz normalizazioa.
- Euskararen aldeko jarrera islatuko duten hitzarmenak sinatzea.



Neurriak hartzeko asmoa duten enpresen ehunekoa batez besteko ehunekoa –%8– baino handiagoa da ondoko kolektiboetan:

- Garraio eta komunikazioetako enpresetan (%18), merkataritza eta ostalaritzakoetan (%13), irakaskuntza eta osasunekoetan (%11) eta beste enpresa batzuetarako zerbitzukoetan (%10).
- 251 eta 500 langilea artean dituzten enpresetan (%12).
- Arabako enpresetan (%12) eta gune erdaldunetan dauden enpresetan (%10).
- Beren produktuak edo zerbitzuak amaierako kontsumitzaileari saltzen dizkieten enpresetan (%12) eta Euskal Herrian saltzen dituztenetan (%12).

EUSKARA HAINBAT ESPARRU EDO JARDUERATAN

ERABILTZEKO PRESTASUNA.

Galdeketa amaitzean, elkarrizketatutako pertsonen galdetu zitzaizen ea beren ustez enpresa prest egongo litzatekeen bere esparru edo jarduera guztietan euskara ere erabiltzeko.


Euskara erabiltzeko onarpen-mailarik handiena ondoko esparruei dagokie:

- Errotulazioa, seinaleztapena eta informazio-txartelak. Enpresen %35ek jada erabiltzen dute, %30 erabiltzeko prest daude eta %18k agian erabiliko lukete.
- Bezeroaren arreta. Enpresen %37k jada erabiltzen dute, %25 erabiltzeko prest daude eta %12k agian erabiliko lukete.

Ondoren:

- Lan-kontratuak. Enpresen %20k jada euskara erabiltzen dute, %33 erabiltzeko prest daude eta %21ek agian erabiliko lukete.
- Beste barne-agiri batzuk. Enpresen %21ek jada erabiltzen dute, %32 erabiltzeko prest daude eta %18k agian erabiliko lukete.
- Publizitatea, liburuxkak, katalogoak eta eskaintzak. Enpresen %24k jada erabiltzen dute, %27 erabiltzeko prest daude eta %15ek agian erabiliko lukete.

Errezelarik handienak jendearentzako produktuen etiketetan eta bilgarrietan euskara erabiltzeko garaian sortzen dira. %14k soilik erabiltzen dute, %16 erabiltzeko prest daude eta %12k agian egingo lukete. Dena den, enpresen %30ek, batez ere zerbitzukoek, ez dute adierazi zergatik ez duten etiketetan eta bilgarrietan erabiltzen.



EUSKARA ERE ERABILTZEKO PREST?

<i>% Bertikalak</i>	<i>Errotulazioa</i>	<i>Bezeroen arretarako</i>	<i>Lan-kontratuak</i>	<i>Barne-agiriak</i>	<i>Publizitatea</i>	<i>Etiketak</i>
Erabiltzen da	%35	%37	%20	%21	%24	%14
Bai	%30	%25	%33	%32	%27	%16
Agian	%18	%12	%21	%18	%15	%12
Ee/Ed	%4	%4	%4	%4	%7	%30
Ez	%14	%21	%23	%24	%26	%27

Esparru edo jarduera guztietan euskara ere erabiltzeko prestasuna oso bestelakoa da enpresa-kolektibo batzuetatik beste batzuetara.

Produktuen etiketak eta bilgarriak kontuan izan gabe —enpresa askok ez baitu ez erabiltzearen arrazoirik adierazten—, eta jada euskara erabiltzen duten enpresen eta erabiltzeko prest daudenen batura aintzat hartuta:

- Jarduera sektorearen arabera, euskara erabiltzeko prest daude irakaskuntza eta osasunaren sektoreko ia enpresa guztiak, garraio eta komunikazioetako eta banku eta aseguruetako gehienak, merkataritza eta ostalaritzako eta enpresa-zerbitzuetako bi herenak baino gehiago, bestelako zerbitzuetako erdiak baino gehiago, industria-sektoreko erdiak gutxi gorabehera, eta eraikuntza-sektoreko herenak baino gehiago.
- Euskara erabiltzeko prestasuna nabarmen gehitzen da enpresaren tamainarekin.
- Euskara erabiltzeko prestasuna nabarmen handiagoa da Gipuzkoako enpresetan Bizkaiko eta Arabako enpresetan baino.
- Ez dago alde nabarmenik gune soziolinguistikoen arabera, 4. guneari dagokionez izan ezik, bertan prestasuna txikiagoa baita.
- Euskara erabiltzeko prestasuna askoz ere handiagoa da Euskal Herrian saltzen duten enpresetan, amaierako kontsumitzaileari saltzen dietenetan eta euskal kapitala dutenetan.

Eta produktuen etiketatzeari dagokionez, prestasun handiena banku eta aseguruaren sektoreko enpresetan eta 1. gune soziolinguistikoan kokatzen diren enpresetan gertatzen da (gehienak industria-sektorekoak).

EUSKARA ERE ERABILTZEKO PREST? (Erabiltzen da + Prest daude)

	<i>Errotulazioa</i>	<i>Bezeroen arretarako</i>	<i>Lan- kontratuak</i>	<i>Barne- agiriak</i>	<i>Publizitatea</i>	<i>Etiketak</i>
<i>Jarduera-sektorea:</i>						
Irakaskuntza - Osasuna	%95	%97	%84	%92	%81	%38
Irakaskuntza	%95	%100	%90	%95	%89	%52
Osasuna	%95	%94	%77	%89	%72	%22
Garraioak - Komunikazioak	%83	%82	%76	%70	%71	%35
Bankuak - Aseguruak	%80	%86	%60	%62	%73	%60
Merkataritza - Ostalaritza	%81	%78	%73	%50	%63	%47
Enpresa-zerbitzuak	%70	%72	%55	%62	%66	%20
Bestelako zerbitzuak	%60	%67	%47	%40	%60	%33
Industria	%58	%53	%48	%49	%40	%30
Eraikuntza	%39	%42	%31	%31	%39	%8
<i>Langile-kopurua:</i>						
100etik 250era	%60	%57	%47	%48	%46	%25
251tik 500era	%69	%71	%59	%59	%57	%39
500 baino gehiago	%81	%74	%68	%75	%66	%44
<i>Herrialdea:</i>						
Gipuzkoa	%82	%78	%77	%77	%72	%47
Bizkaia	%56	%59	%43	%45	%46	%26
Araba	%56	%39	%32	%37	%24	%10
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>						
1. gunea	%75	%72	%68	%75	%57	%61
2. gunea	%66	%68	%61	%60	%57	%39
3. gunea	%79	%70	%63	%64	%59	%27
4. gunea	%55	%53	%38	%41	%42	%21
<i>Produktu/zerbitzuaren hartzailea:</i>						
Kontsumitzailea	%75	%75	%61	%63	%66	%42
Beste enpresa bat	%59	%55	%50	%49	%44	%24
<i>Non saltzen da?</i>						
Euskal Herrian	%79	%84	%66	%67	%76	%36
Kanpoan	%53	%43	%41	%41	%28	%20
<i>Kapitalaren jatorria:</i>						
Bertakoa	%69	%73	%63	%65	%63	%33
Kanpokoa	%58	%51	%41	%38	%37	%19

LABURPENA ETA ONDORIOAK.


0 eta 10 arteko eskala batean, euskararen batez besteko erabilera 3 puntu ingurukoa da enpresaren jardueretan eta EAEko enpresa handietako komunikatzeko moduetako bakoitzean.

Dena den, batez besteko balio horren atzean askotariko egoerak daude, eta aniztasun hori oso ondo islatzen du grafiko batek: komunikatzeko moduetan gertatzen den euskararen erabileraren arabera enpresen tipologiari buruzko grafikoak.

Planoaren goi eta eskuinaldeko erpinean 9. taldea dago. Enpresa gutxi batzuek osatzen dute talde hori, %4k, eta horien erdiak irakaskuntza-sektorekoak dira; enpresa horiek komunikatzeko modu guztietan beti edo ia beti erabiltzen dute euskara.

Aurkako erpinean, behe eta ezkerraldekoan, 9. taldea dago, enpresen herenak daude bertan, %33; euskara inoiz edo ia inoiz erabiltzen ez duten enpresak dira, eta horien artean mota guztietako enpresak daude, edozein jardueratakoak, tamainatakoak eta abar.

Bi erpinak batzen dituen zuzenaren azpian 4, 7 eta 8. taldeak daude, guztizkoaren %30; batez ere industria-sektoreko enpresak dira, eta euskara ahozko komunikazioan erabiltzen dute (barnekoan kanpokoan baino gehiago), gune linguistikoaren arabera gehiago edo gutxiago erabiliko dute. Idatzizko komunikazioan oso gutxi erabiltzen dute.



Zuzen horren gainetik, 2, 3 eta 6. taldeak daude, guztizkoaren %20, batez ere zerbitzu-sektoreko enpresak dira. Euskara idatzizko komunikazioan erabiltzen dute, gehiago edo gutxiago, eta horretan eragina izango du zerbitzua Euskal Herrian egiteak edo kanpoan egiteak, amaierako kontsumitzaileari egiteak eta/edo euskararen erabilerari buruzko planak edo irizpideak edukitzeak. Enpresa horiek, bestalde, askoz ere proportzio txikiagoan erabiltzen dute euskara ahozko komunikazioan, bezeroaren arreta zuzenean izan ezik.

Datu horien arabera, eta esparru sozio-ekonomikoan euskara gutxi erabiltzen den ideia orokorra dagoela aintzat hartuta, bi interpretazio egin daitezke:

- Lehena, benetan euskara gutxi erabiltzen dela esparru horretan, salbuespen oso zehatz batzuetan izan ezik.
- Bigarrena, enpresen erdietan, gutxi gorabehera, euskara inoiz edo ia inoiz erabiltzen ez den arren, beste erdiek neurri batean edo bestean erabiltzen dutela, eta segur aski espero zitekeena baino gehiago.

Bi interpretazioak baliagarriak izan daitezke, behatzailearen izaera baikorraren edo ezkorren arabera.

Enpresa dagoen gune soziolinguistikoa da euskararen erabileran eraginik handiena duen faktorea, faktore horrek argitzen baitu neurri handi batean ahozko komunikazioan gertatzen den erabilera, batez ere barnekoan.

Jarraian jarduera-sektorea eta merkatu geografikoa eta produktuen edo zerbitzuen hartzaila daude. Faktore horiek kanpoko komunikazioan gertatzen den erabilera argitzen dute, batez ere idatzizkoan. Irakaskuntzaren sektorea alde batera utzita –salbuespena baita–, erabilera zertxobait handiagoa da beren zerbitzuak Euskal Herrian eta amaierako saltzaileari saltzen dizkieten sektoreetan, hala nola banku eta aseguruaren sektorean, merkataritza eta ostalaritzako sektorean eta bestelako zerbitzuen sektorean.

Azkenik, euskararen erabilera normalizatzeko planak edo irizpideak edukitzearen faktorea aipatu behar dugu. Enpresen tamainarekin lotzen den alderdi horren eraginez, gehiago erabiltzen da euskara enpresa batzuetan beste batzuetan baino, nahiz eta gainerako faktoreetan baldintza berak dituzten enpresak izan.

Enpresetan euskara gehiago erabiltzeko neurriak hartzeari dagokionez, ia guztia asmatuta dagoenez gero, eta miraririk ez dagoenez gero (salbuespenak baino ez daude), zenbait enpresatan emaitza baikorrak eragin dituzten jardunak beste enpresa batzuetara zabaldu beharko lirateke.

Irizpide horri jarraituz, eta komunikatzeko moduetan gertatzen den euskararen erabileraren arabera enpresen tipologiari buruzko grafikoa aintzat hartuta, bi jardun-ildo nagusi defini daitezke. Bakoitzak bere aldagaiak izango ditu enpresek planoan duten kokapenaren arabera. Hona bi jardun-ildo horiek:

-
- The diagram illustrates the evolutionary paths of nine tree species (labeled 1.T through 9.T) based on two axes: **IDATZIZKO ERABILERA** (Y-axis, Beti) and **AHOZKO ERABILERA** (X-axis, Beti). The origin is labeled **Inoiz ez**.
- Species 1.T:** Located at the bottom left with a value of %33.
 - Species 2.T:** An oval containing %6, connected to 1.T by a thick arrow pointing towards the top-left.
 - Species 3.T:** An oval containing %4, connected to 2.T by a thick arrow pointing towards the top-left.
 - Species 4.T:** A large circle containing %18, located near the origin.
 - Species 5.T:** A circle containing %13, located above 4.T.
 - Species 6.T:** An oval containing %10, connected to 4.T by a very thick arrow pointing towards the top-right.
 - Species 7.T:** An oval containing %8, located below 4.T.
 - Species 8.T:** An oval containing %4, connected to 7.T by a thick arrow pointing towards the top-right.
 - Species 9.T:** An oval containing %4, connected to 6.T by a thin arrow pointing towards the top-right.
- Thin arrows also point from 5.T towards the right and from 4.T towards 7.T.

- Lehena: 1. T $\rightarrow$ 2. T $\rightarrow$ 3. T. Ibilbide horrek alde on bat du, abiapuntuko potentziala oso handia da, mota guztietako enpresa-kopuru handia dago 1. taldean; alabaina, txostenean ikusi den moduan horien %10ek soilik jotzen dute garrantzitsutzat euskararen erabilera enpresan, eta herenek baino gehiagok egokitzen jotzen dute erabiltzen duten euskara.
- Bigarrena: 4. T $\rightarrow$ 5. T $\rightarrow$ 6. T. Kasu horretan ere enpresen kopurua handia da, eta, gainera, langile euskaldunen proportzio handia dute; alabaina, 4 eta 5. taldeetako enpresa gehienak industria-sektorekoak dira (Euskal Herritik kanpoko beste enpresa batzuei saltzen dizkiete beren produktuak). Dena den, arrakasta lortzeko aukera handiena duen bidea da; izatez, planoaren goialdean 6. taldea da handiena, eta horrek biderik arrakastatsuena dela frogatzen du.

- Hirugarrena: 7. T → 8. T → 9. T. Kasu horretan 7 eta 8. taldeetako enpresetako langile gehienak euskaldunak dira, baina horrek ere badu alde txarrik, enpresa gutxi dira eta gehienak industria sektorekoak dira.

Bigarren jardun-ildoan gauzatzea zailagoa da, bai eta horren bidez emaitza onak lortzea ere. Hasiera batean, bere langileen artean euskaldunen ehunekoa txikia den kasuetan soilik balio du, hau da, 4. taldetik aurrerako taldeetako enpresetan. Gainera, kasurik onenetan ere emaitzak partzialak izango dira; unitate edo sail jakin batzuetan euskaraz lan egitea lor daiteke, baina zaila izango da enpresaren osotasunean egitea. Kontuan izan behar da langile guztiek edo ia guztiek ez dakitela euskara.

Horrek emaitzak lortzen dituzten enpresak eskuinalderantz jotzea ekarriko luke, baina oso zaila da 6. taldeak 9. taldera jotzea, esate baterako. Helburu hori lortzeko, oso kasu berezietan izan ezik, ezinbestekoa da enpresako langileen artean belaunaldi-aldaketa gertatzea.

Gaur egun euskararen erabilera normalizatzeko planik edo irizpiderik ez duten enpresa batzuk prozesu horretan bideratzea erabateko arrakasta izango litzateke, eta horixe da, hain zuzen ere, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bete behar duen funtzioa.

Galdeketa egin denean jasotako informaziotik ondoriozta daiteke enpresa askotan nolabaiteko interesa dagoela. Izan ere, galdeketa erantzun duten enpresen erdiek, gutxi gorabehera, harremanetarako pertsona baten izena eman dute Sailburuordetzak egiten dituen zerbitzuak eskaini ahal izateko. Guztira tipologia guztietako 200 enpresa baino gehiago izan dira, eta gehienek ez dute normalizaziorako planik edo irizpiderik.

Orain horiekin jarri behar da harremanetan, eta beren benetako prestasuna aztertu ondoren eta ikuspuntu soziolinguistikotik zer egoeratan dauden ikusirik, prozesuan interesa duten enpresekin lanean hasi beharko da, eta beren enpresen ezaugarrietara egokitzen diren euskara normalizatzeko planak edo irizpideak lantzeko zereginean elkarlanean jardun beharko da.